



**Erlezain eguna
Zegaman**

**Gazte
Topagunea
Itsasondon**

**Euskadiko
txirrindulari
itzuliaren
amaiera
Lazkaon**

Aste Santua Seguran



Zure argazki kamera

**digitaletik
argazkira**

gure betiko kalitatearekin



* Automatikoan, errebelatu merkea ere badugu.




IKUSMEN

AZTERKETA


RIK BEHAR AL



Doako ikusmen
azterketa orokorra;
begi tentsioaren
hartzea; eta kontaktu
lenteen egokitzea.



Muntaia tailerra;
betaurreko aukeraketan
aholkularitza; eta azken
teknolokiazko gabinete nahiz
tailer makinaiak.



NAFARROA
ETORBIDEA, 14
BEASAIN - GIPUZKOA
943 883 110



ITURGINTZA - KALEFAZIOA - GASA
BAINU ETA SUKALDEKO INSTALAKUNTZAK
ETXEBIZITZEKO AIRE EGOKITUAK
BERRIKUNTZA LANAK
GREMIO GUZTIEN ARDURA



SUKALDEKO ETA
BAINUKO ALTZARIAK



BULEGOAK-LANTEGIA
USABAL, 11-A
TOLOSA
Tel.: 943 672 620



ERAKUSKETAK:
SAN FRANTZISKO, 10
TOLOSA
Tel.: 943 653 307

Goierritarra

HAMABOSTEKARIA

Argitaratzailea:

Goierritarrak Kultur Elkartea
Dorre-etxea, 1 (Postetxe gainean)

124 posta-kutxa ORDIZIA

Tfnoa: 943 88 96 12

Faxa: 943 88 27 19

Posta elektronikoa:

goierritarra@topagunea.com

Zuzendaria: Loinaz Agirre

Maketazioa: Mikel Albisu

Publizitatea: Argider Mujika

Zenbaki honetako kronista eta

kolaboratzaileak: Joseba Telleria, Aitor Calvillo, Xabier Urteaga, Nekane Altuna, Edurne Albizu, Aitor Tello, Doltza Barandiaran, Aitziber Murua, Aimar Maiz, Ion Muñoa, Iñaki Ugalde, Igor Sarriegi eta Landarlan.

Fotokonposizio eta maketazioa:

Goierritarra

Inprimaketa: Gertu (Zubillaga 9. Oñati)

Tirada: 7.100 ale

SSN: 1132-0907

Lege gordailua: SS-926/89

Frankeo kontzertatua: 37/76

*GOIERRITARRAK ez du bere gain hartzen
derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen
eta iritzien erantzukizunik.*



*Eusko Jaularitzako
Kultura Sailak,
Gipuzkoako Foru Aldundiak
eta
GOIERRIKO UDALEK
diruz lagundutako
aldizkaria*

Familia euskaldunentzako eta euskara ikasleentzako aukera

Egonaldiak familia euskaldunetan

Euskara ikasten edo hobetu nahian, nahiz bertako euskalkia ezagutzeko asmotan dabilen pertsonari, familia euskaldun batean hilabete bat edo bi pasatzeko aukera eskaintzen die Ulibarri eta Urrats euskaltegiek, Haberen laguntzaz.

Uztailean, abuztuan eta irailean izango dira egonaldiak eta euskara ikastearekin batera, herri euskaldunen bizimodua eta ohiturak ezagutzeko aukera ere izango du ikasleak.

Programa honek beraz, bi ardatz ditu: familia eta ikaslea. Bakoitzak bete behar dituen baldintzak hauek dira.

Familientzako baldintza nagusiak

- Biztanleriaren %70etik gora euskalduna duten udalerrietako zein auzuneetako batean bizi izatea.
- Egonaldia eskaintzen den hilabetean, familian gutxienez hiru kide bizi izatea.
- Kide guztien arteko ohiko komunikazio-hizkuntza euskara izatea.
- Egonaldiak hilabetekoak izango dira gutxienez, eta egonaldi bakoitzeko ikasle bat besterik ezingo da hartu.
- Ikasleak familiako bizitzan parte hartuko du, eta familiak gutxienero intimita-

tea eta askatasuna eskainiko dizkio.

- Ikasleari logela pribatua emango zaio.
- Ikasleak, etxeko zein baserriko lanetan parte hartzera beharturik ez badago ere, berak hala nahi badu, parte har dezake ohiko eginkizunetan.

Familiak, egonaldi bakoitzeko 570 euro jasoko ditu. Ikasleak hartu nahi dituzten familiek apirilaren 18ra arteko epea dute izena emateko. Informazioa: www.egonaldiak.net edo 943 474447 (Olga).

Ikasleentzako baldintza nagusiak

- 18 urtetik gorakoa izatea.
- 8. urratsa gainditua izatea, edo horren baliokidea (Hizkuntz Eskola Ofizialeko 4. maila, Administrazio Publikoko 2. H.E., Irakaskuntzako 1. H.E., Lanbide Heziketa I, edo BBB edo UBI D hizkuntz ereduan egina izatea).

Maiatzaren 3tik 31ra izango dute programa honetan parte hartu nahi duten ikasleek izena emateko epea. Ikasleak, egonaldi bakoitzeko 280 euro ordaindu beharko ditu. Informazio gehiago: www.egonaldia.net edo 944 162472 (Alaitz).

Goierritarra Goierrikan kanpo jaso nahi dutenentzat, posta gastuak ordaintzeko tarifak:

Hego Euskal Herria eta Espainia:	urtean 12 euro
Ipar Euskal Herria eta Europa:	urtean 24 euro
Europaz kanpo:	urtean 36 euro

Madrilgo Kongresurako hauteskunderen emaitzak herriz herri

HERRIA	ZENTSOA	ABST.	BALIOGAB.	EAJ	PSE-EE	EA	PP	ARALAR-ZUTIK	EB-IU
Altzaga 2000n	117 84	%21,37 %69,05	32 0	36 12	4 1	9 11	0 0	9 -	1 1
Arama 2000n	135 144	%19,26 %58,33	28 0	36 35	2 1	24 16	4 6	14 -	0 1
Ataun 2000n	1.329 1.384	%23,02 %62,57	418 2	325 327	16 9	148 165	8 4	75 -	28 4
Beasain 2000n	10.128 10.084	%25,38 %39,37	786 75	2.565 2.147	1.632 1.438	734 772	829 1.152	397 -	484 266
Ezkio-Itsaso 2000n	464 467	%25,86 %60,17	95 4	111 88	5 4	76 76	4 7	34 -	15 4
Gabiria 2000n	344 359	%18,02 %39,00	47 1	74 60	4 1	120 142	3 8	27 -	5 0
Gaintza 2000n	106 109	%25,47 %58,72	16 0	42 25	0 1	9 10	0 1	7 -	1 2
Idiazabal 2000n	1.763 1.722	%21,67 %46,34	233 2	487 326	57 44	411 429	58 97	86 -	29 10
Itsasondo 2000n	460 516	%30,00 %64,53	105 10	121 77	11 16	31 49	8 18	30 -	10 2
Lazkao 2000n	4.115 4.011	%26,22 %49,44	577 13	889 658	531 456	363 289	281 420	168 -	173 117
Legorreta 2000n	1.149 1.175	%22,54 %47,23	169 6	374 305	116 105	75 70	58 99	50 -	39 16
Mutiloa 2000n	137 141	%31,39 %63,83	19 2	46 31	1 1	17 13	0 3	7 -	4 1
Olaberria 2000n	789 834	%23,83 %40,53	87 2	197 156	142 135	41 47	75 120	18 -	36 17
Ordizia 2000n	7.291 7.597	%26,31 %44,18	804 36	1.548 1.202	989 909	619 726	646 901	325 -	382 266
Ormaiztegi 2000n	1.011 958	%20,67 %44,78	152 5	380 341	49 24	101 100	38 35	53 -	24 13
Segura 2000n	1.007 1.027	%19,86 %49,37	212 7	222 203	21 12	255 243	18 32	48 -	17 5
Zaldibia 2000n	1.218 1.274	%24,63 %78,26	394 6	185 84	33 48	80 67	32 40	170 -	19 19
Zegama 2000n	1.101 1.111	%21,62 %50,86	199 4	214 152	11 13	364 332	16 36	40 -	13 4
Zerain 2000n	212 207	%16,98 %50,24	56 1	80 63	0 2	26 32	0 1	10 -	4 0
Guztira 2000n	32.876 33.204	%48,60	4.429 176	7.932 6.292	3.624 3.220	3.503 3.589	2.078 2.980	1.568 -	1.284 748



kutxa

gizarte ekintza

Ainhoa Irastorza ordiziar presoak jipoituta

Madrilgo martxoaren 11ko atentatuaren ondorioz, Avilako kartzelan dagoen Ainhoa Irastorza euskal preso ordiziarra jipoitu egin zuten. Familiak emandako datuen arabera, "martxoaren 11n bertan, funtzionarioek bere zelda hankaz gora jarri zuten eta hurrengo egunean, beste hainbat preso bezalaxe, kartzelako funtzionarioek lagundu eta bultzatuta zazpi presok gogor jipoitu zuten. Presoek jotzen zuten bitartean funtzionarioak parrez zeuden ondoan. Aulki bat burura bota; iletik tiraka, eta kolpeka lurreratu, eta zazpiren artean makilaz eta ostikoka jipoitu zuten. Ile dezente kendu zizkioten. Azkazala begian sartu eta hemorragia ere izan zuen. Zauri fisiko argiak eragitez gain, irain eta mehatxu larriak jasan ditu. Orain okerrean, egunero, bera jipoitu dutenekin bizi beharra da".

Jipoi honen aurrean, Ainhoa Irastorzaren familiak eta lagunek, Ordiziako Udalari hainbat eskaera egin dizkiote. Batetik, presoaren egoeraz arduratu daitezela, ordiziar guztiei presoaren egoeraren berri eman diezaietela eta Udalak protesta kontzentrazioa dei dezala Ainhoa Irastorzaren eta gainontzeko presoaren eskubideen alde. Udalaren jarrera salatu dute Ainhoa Irastorzaren familiak eta lagunek. "PNV eta EA, Udala, Giza Eskubide guztien alde omen dago. Errealitateak, ordea, kontrakoa frogatzen du. Ainhoa Udalarentzat bigarren mailako ordiziarra da. Beren burua zuritzen saiatuko dira, baina ez dute konpromiso seriorik hartuko Ainhoaren eskubideak bermatzeko, beraien kolaborazioarekin diseinatu eta gauzatu zen dispertsioarekin amaitzeko, konponbide politikoak aurkitzeko". Ainhoa Irastorzaren jipoia salatzeke, kontzentrazioa egin zen martxoaren 21ean Ordizian.

Matxinbentako Enrio baserria erre zen martxoaren 12an

Goizeko 2,30ak aldera, Beasaingo Matxinbenta auzoko Enrio baserriak sua hartu eta kiskalduta gelditu zen. Auzotarrak eta suhiltzai-leak inguratu baziren ere, alperrik izan zen. Bertan bizi ziren 81 eta 79 urteko bi ahizpa suak harrapatuta hil ziren. Anaiak, bere kabuz ateratzea lortu zuen.

Lan istripua Ormaiztegin

Martxoaren 18an, Ormaiztegiako harrobi batean 44 urteko T.E.M. langilea hil zen.

Azoka berezia Ordizian, apirilaren 14an

Artzainari eskainitako azoka berezia egingo da apirilaren 14an Ordizian. Ardiak herriko kaleetan barrena pasatuko dira, transhuman-tziaren lekuko. Horrekin batera, Idizabal Gaztaren denboraldi berriari ofizialki hasiera emango zaio udaletxean egingo den ekitaldian.

Imuntzo eta Belokiren disko berria

Zaldibiako Beloki panderojoleak eta Imuntzo trikitilariak 'Ganbaran bai' disko berria kaleratu dute. Urolako trikiti pieza zaharren bilduma osatu da berau. Urolako zenbait trikitilari historikok sortutako piezak bere garaian berezkoa zen moldean jo eta bat-batekotasuna mantendu nahi izan dute. Trikiti eta panderoaz gain, hain ohizkoak ez diren musika tresnak sartu dituzte: botila, trikitiaren maleta, tinbalen kaxa... Guztira 23 abesti.



Zorion Insaustiren laguntzaz

Aurikuloterapia
Iriodologia
Dietetika
Senda belarrak



Oreka

Dietetika eta medikuntza naturala

☎ 943 88 13 37

☎ 605 769 653

Kale Nagusia, 8 ORDIZIA



MUJKA
LIBURUDENDA

Kale Nagusia, 19

☎ 943 88 11 94

ORDIZIA

AUZOKI
Komunitateen administrazioa
Kol. Zerb. 599
Urdaneta 52-behea. Ordizia.
Tel.: 943 087 486
635 703 671 / 635 702 570

- Jabekideen komunitatea osatzea
- Komunitateen kontabilitatea
- Akten idazketa
- Aurrekontuen eskaera
- Aholkularitza legala
- 24 orduko asistentzia
- e.a.

Legazpi eta Goierri

Gabiriarrak makilariak, idiazabaldarrak axeriak, zegamarrak belak...eta legazpiarrak ilintxak. Burugogor fama genuelako jarri ziguten gaitzizena, erre gabe gelditu ohi den egur ikatz puska temosoia. Izen horrekin izendatzen gintuzten Goierri osoan; arrazoi simple bat dela medio: legazpiarrak goierritarrak gara.

Zein arrazoi dago goierritar labela eman ez diezaguten? Gu baino goierritarragoak al dira Legorreta, Ikaztegieta, Itsasondo edo Gaintzako bizilagunak? Legazpirekin mugante dauden Gabiria, Mutiloa, Zerain eta Zegamak guk baino meritu gehiago egin al dituzte goierritartzat har ditzaten? Ez al gara gu goienean dagoen herria? Titulu hori ondo merezia daukagu: 400 metroz goitiko altueran bizitzea egokitu zaigu (bide batez, edurra zapaldu nahi izango bazenute etor zaitetzte gurera; majo gozatuko zarete Aizkorri barren nire ustez bikain honetan).

Alde batetik, hizkerari begira, zalantza izpirik ez dago gure hizkera goierritarra dena, nahiz eta ezaugarri berezi batzuk badituen. Ahul samar dago aspaldi honetan, ez dauka kemen haundirik, baina ziur naiz denon ahaleginarekin indartuko dugula. Bestetik, gure harremana sakona izan da Goierriko gainerako herriekin. Gure burdinola famatuak babesteko aitzakian, Segurak mendeen hartu gin-


tuen, harik eta burujabetasuna lortu genuen arte; nola Mutiloako nola Zeraingo meazuloak ustiatu genituen mende luzez, geure oletako sutegetan burnia urtuko bazen; zegamarrekin artzantzak lotu gintuen Oamendi, Urbia eta Altzaniako partzonerian, artzantzak indar handia izan baitzuen. Patricio Etxeberria lantegi erraldoiak Idiazabalgo atek zabaldu zizkigun.

Zerk egiten gaitu bada desberdin? Esan liteke bizpahiru arrazoi badirela. Geografiari dagokionez, jakina da Urola ibaiaren arroaren sorlekua dela Legazpiko hiria (hiria baikara, nahiz eta herri itxura duen). Gipuzkoako bi arro nagusien artean kokatzen da Legazpi harana luze eta estua: aldenik alde hiruzpalau kilometro baino ez daude Gabiriko mugatik Oñati aldera. Txantxikuekin harreman handia izan da gure herriaren historian. Urretxu-Zumarragarekin ere, logikoki, loturarik izan da; halere, otamotxak Azkoiti-Azpeitirekin lotuago egon dira. Administratiboki Bergararekin lotuta gaude. Ederra potajea! Urola garaia kontzeptu geografiko-ekonomikoa da nere ustez, inondik ez kulturala. Hartara, Ezkio-Itsaso, zeinak Zumarragarekin lotura ikaragarria izan duen eta duen, ez guke Goierri barruan kokatuko (astakeria galanta inondik ere). Matximentan bat egiten duten Ezkio eta Beasainen jatortasun goierritara ez du, jakina,

inork zalantzan jartzen. Geografikoki Urola gara, ezin ukatuzkoa da hori. Ekonomikoki Zumarragarekiko mendekotasuna daukagu, batez ere bailara industrializatu ostean. Kultura eta hizkuntzari begira goierritarrak gara guztiz, ordea.

Hizkuntza aitatuta bukatu nahi nuke. Euskarak eta historiak, baita sentimenduak ere, egiten gaitu goierritar. XX. mende hasieran guztiz euskaldunak ginenak gainbehera handia antzeman genuen arkitektura, ohitura, harreman eta, batez ere, hizkuntzaren alorrean (Beasain edo Ordiziaren pare geundek azterketa soziolinguistikoei erreparatuz gero). Gainerako goierritarrek ez gaituzte goierritartzat jotzen. Egin diezagutela bisita, eskaini diezagutela euskarazko produktuak dastatzeko aukera; esate baterako, Goierritarra aldizkaria edo Goierri telebista. Produktu horien premia larria dugu. Agintariak, komunikabideetako arduradunek eta gainerako kultur eragileek gure goierritartasuna asetzen lagunduko baligute, pozik nengoke. Nola egin guzti honi jare?

Aitor Gurrutxaga Zubia
(Legazpi)


SILVI MIRAS CASASAYAS
ODONTÓLOGA



TEL./FAX: 943 88 92 87
SAN INAZIO KALEA, 2
20200 BEASAIN - (GIPUZKOA)


Aholkularitza

ASEPLAN

Abokautak - Ekonomilariak

Tel.: 943 887 129 Tel.: 943 086 420
Oriamendi 15, behea J.M. Iturriotz, z/g
BEASAIN

- ✓ Enpresen asesoria eta gestioa
- ✓ Etxebizitza salerosketa
- ✓ Etxeko jabekideen administrazio-lanak


www.txekin.net

Altxor bila Aratz-Aizkorri parke naturalean

Bai iberiar penintsulan bai Europan gero eta ugariagoak dira arriskuan dauden landare-espezieen kontserbazioa helburu duten ikerlan eta legediak. Ildo honetatik berebiziko garrantzia izan du Europar Batasunak ezarritako Habitat Direktibak eta honen ondorio den Natura 2000 sareak, mehatxupeko landareen eta hauen habitaten babesa bermatzen baitute. Euskal Herrian bertan, mehatxatutako floraren katalogoa egin da eta landaredi mehatxatuaren kontserbazioa xede duen legedia ere onartu da.

Aratz-Aizkorriko Parke Naturalak bere baitan berebiziko aberastasun floristiko, faunistiko eta etnologikoak gordeko ditu. Honen adibide gisa esan Eusko Jaurlaritzak babes izaera eskaintzen dien landareen % 25a bertan aurki dezakegula; bibliografiaren arabera mehatxaturiko 34 landare-espezie topa daitezke, nahiz eta pentsatze-koa den gehiago ere egon daitekeela.

Landare hauetariko gehienetan duela milaka urte izan ziren glaziazioekin etorritako floraren azken aztarnak dira; pixkanaka, bailaretan klima epeltzen zihoan eran landare hauek mendietan gora egin zuten baldintza gogorragoen bila. Egun Picos de Europa eta Pirinioetako populazioen arteko lotakari bakarrak bilakatu dira kasu batzutan. Picos eta Pirinioetan, garaiera altuagoan topatzen diren espezieak Aratz-Aizkorri as-



koz garaiera baxuagotan topatu ahal dira. Hau guztirengatik landare hauek gure ondare naturalaren benetako altxorrak dira.

Parkeak eskaintzen duen aberastasun hau kontuan hartuta Landarlanek ezinbesteko deritza landare hauen egoera zein den ezagutzeari. Honetarako Landarlaneko 5 kidek Aranzadi Zientzia Elkartarekin eta Euskal Herriko Unibertsitatearekin elkarlanean Aratz-Aizkorriko Parke Naturaleko 14 landare-espezieen (lehen aipatutako 34etatik mehatxatuenak daudenak) egoera ikertuko du 2004 urtean zehar. Ikerlanak hiru helburu nagusi ditu: alde batetik, landare-espezie mehatxatuen ezagutza sakontzea (kokalekua, kopurua, egoera, habitata...); bestetik, landare hauek beren iraupenerako izan ditzaketen arazoak diagnostikatzea eta azkenik, beren iraupenerako jarraitu beharreko pausuak proposatzea. Gainera, hezeguneek betetzen dituzten funtzio ekologikoak eta duten balio floristiko nahiz faunistikoa kontuan hartuta Parkeko hezeguneen landare-komunitateak ere inbentariatu ditugu.

Ikerlan honek eta honen antzeko beste batzuk berebiziko garrantzia izan dezake abian jartzeko den Aratz-Aizkorriko Parke Naturalaren kudeaketa edo gestioan: mehatxaturiko landare-espezie konkretuen kudeaketarako ezezik, balio floristiko bereziagatik kudeaketa-plan edo babes berezia behar duten guneak zehazten lagundu baitezake.

*Ainara Arzelus, Joseba Garmendia,
Amaia Gorospe, Gloria Hidalgo eta
Oihana Zubizarreta*

JAKIN BEHARREKOA

✓ Denboran luzatzen ari bada ere **Aratz-Aizkorriko Parke Naturala** laster izango dugu abian. Hurrengo artikuluan batean Landarlanek gai honen inguruan izango duen jarrera azalduko dugu, Parkea sortzeko prozesua eztabaida eta zailantza asko sortzen ari den gaia baita.

✓ **Udaberria iritsi berria** dela egutegiak ezezik naturak ere agerian uzten du: hasiak dira sorbeltz eta enarak urteroko bide luzea egin ondoren guganaino iristen. Laster ikusiko ditugu gure baserri eta etxe inguruetan intsektuak harrapatu nahian airean batetik bestera dantzan dabilzala.

✓ **Transgenikoak:** Europar Batasunak ez du bt11 arto transgenikoaren merkaturatzea (inportazioak) onartu. EHNEK eta beste gizarte eragileek bultzatutako kanpainak eraginkorrak suertatzen ari direla adierazten du erabaki honek, sindikatuaren aburuz.

✓ **Pestiziden erabilpena EAEn:** Eusko Jaurlaritzako Osalanek EAEko 70 base-rietan pestiziden erabilpena eta zainketari buruzko ikerketa burutu du. Emaitzek adierazi dute pestiziden erabilpena (eskularru, maskara, eguraldia, dosiak...) zein zainketa (etiketa ikusgai, biltegiatze baldintzak...) baldintzak ez direla egokiak.

"Aratz-Aizkorriko Parke Naturalak bere baitan berebiziko aberastasun floristiko, faunistiko eta etnologikoak gordeko ditu"

Landar Lan taldeak egindako orrialdea

Taldean parte hartu edo gairen bat aportatu nahi baduzu: ☎ 943 16 12 44

'Hizkuntz eskubideak! Denon konpromisoa' ekimena: Herritarren hizkuntz eskubideen aldeko konpromisoa eskatu du Kontseiluak

Hizkuntz eskubideen eta euskararen normalizazioaren aldeko konpromisoak hartzeko eta areagotzeko kanpaina jarri du martxan, Euskararen Gizarte Erakundeek Kontseiluak. Euskaldunei eta erdaldunei zuzendutako kanpaina da, euskararen normalizazio bidean guztion parte hartzea beharrezkoa ikusten baitu Kontseiluak.

Euskararen Gizarte Erakundeek Kontseiluak martxan jarri berri duen kanpainarekin bat egin du Ordiziako euskalgintzak. Hitzarori iritsi zitzaien Kontseiluaren proposamena. Hitzarok Ordizia mailan hainbat erakunderen artean gaia aztertu eta Hitzaro Euskara elkarteak berak, Ordiziarrek Gera plataformak, Euskal Herrian Euskarazek, AEK-k, Jakintza Ikastolak, Goierri Lanbide Eskolak eta Argi Berri elkarteak bat egin dute Kontseiluaren kanpainarekin.

Euskararen normalizazioa helburu izanda, norbanakoen konpromisoak nahi ditu Kontseiluak.



hizkuntz eskubideak

denon konpromisoa

derechos lingüísticos, compromiso de todos y todas



Etengabeko konpromisoa
1998an Bai Euskarari Akordioa sinatu zuten hainbat eta hainbat gizarte eragilek. Orain ordea, norbanakoei edo herritarrei zuzendu zaie Kontseiluak.

Puzzle bateko pieza da kanpainaren irudia. "Puzzle horrek adierazten du euskararen normalizazioan guztiok garelako beharrezkoak, inor ez dagoela sobran, eta bakoi-

tzak berari dagokion atala osatu behar duela", diote Kontseiluko ordezkariak.

Bi epe edo fase ezberdinak izango ditu Kontseiluaren ekimen berri honek. Lehenengoan herritar esanguratsuengana joko da, herrietan "ospea edo prestigioa" dutenengana. Ordiziako kasuan, apirilaren 19an egingo dute aurkezpena herritar esanguratsu hauek, euskararen aldeko

konpromisoak aldarrikatuz.

Bigarren fase batean, konpromisoen eskaera zabalagoa izango da. Herritarrek, han eta hemen jarriko diren mahaietan, norberak bere neurriko konpromisoak hartzeko aukera izango dute. Erdaldunei eta euskaldunei zuzenduta dago kanpaina. "Euskararen normalizazio prozesuak guztion beharra du, euskaraz dakienarena eta ez dakienarena. Guztiei dagokie konpromisoak hartu eta normalizazioan parte hartzea". Honela, konpromisoetako batzuk erdaldunek hartzeko modukoak izan daitezela saiatu dira Kontseilukoak. Maila ezberdineko konpromisoak izango dira. Adibide batzuk jartzearren: Euskara ikasiko dut. Neure euskara maila hobetu egingo dut. Lehen hitza euskaraz egingo dut edozein erakunde, elkarte edo enpresatan. Seme-alabak D ereduan eskolatuko ditut...

Goierritarra aldizkari honetan bertan, ekaina bitartean, alero joango gara kanpainari berri honen xehetasunak ematen. Dena den, informazio zehatzena Ordiziako Hitzaro Euskara Elkartean jaso ahal izango duzue. Harremanetarako telefono zenbakia: 943162366.

Euskara ikasiko dut. Neure euskara maila hobetu egingo dut. Lehen hitza euskaraz egingo dut. Seme-alabak D ereduan eskolatuko ditut...

LOINATZ

Taberna
Jatetxea
Bazkari, afari,
ogitarteko, pintxoak



☎ 943 88 20 07

Nagusia, 27

BEASAIN

PSIKOLOGI KLINIKOA



Jose Ramon Pato Prieto

Psikologian lizentziatua

Elkargokide zenbakia: E-2644

RPS: 420/95

JM Arana, 1 - 2. esk. esk.


Helduen,
umeen, bikoteen
eta sexologi
tratamenduak

AURRE ZITA

☎ 943 887 221

☎ 610 020 041

BEASAIN



Iturgintza - Berogintza - Gasa

Carrefour merkatalgunea

Tel. - faxa: 943 88 19 87 - 676 178 488

OLABERRIA

Apirilak 4: Erlezainen eguna Zegaman

Erlezainak izango dira protagonista apirilaren 4an Zegaman. Dena den, aurretik ere izango da ekintza bat baino gehiago.

Martxoak 30, asteartea:

14:30ean: Herriko Eskolan, erlezaintzari buruzko hitzaldia eta bideo emanaldia ikasleei zuzenduta, Gipuzkoako Erlezain Elkartearen eskutik.

19:30ean: Olarango Gizarte Zentroan, 'Euskal Herriko gozogintzaren bilakaera'ri buruzko hitzaldia. Hitzlariak, Antton Adarraga (Hernaniko Adarraga Gozotégikoa) eta Juan Jose Urigain (Hondarribi eta Irungo Hawai Gozotégikoa).

Apirilak 1, osteguna:

19:00etan: Hitzaldia, Olarango Gizarte Zentroan: 'Eguraldia eta erleak elkar gozatzen'. Hitzlaria: Pello Zabala Frantziskotar frailea eta Seminarioko Behategi Meteorologikoaren arduraduna).

Apirilak 3, larunbata:

11:00etan: Hitzaldia Faisoro nekazal eskolan (Zizurkil): 'Bertako erle beltzaren' inguruan dagoen proiektuari buruz. Hitzlariak: Mikel Sarasola biologoa, eta Irati de Miguel, Euskal Unibertsitateko Genetika Saileko irakaslea.

22:30ean: Zegamako Udal pilotalekuan, bertso jaialdia Kasino Elkarteak antolatutik.



Bertsolariak: Andoni Egaña, Sebastian Lizaso, Maialen Lujanbio, Iker Zubeldia, Ekaitz Goikoetxea eta Jokin Sorozabal. Gai jartzailea: Larxaro Azkune.

Apirilak 4, igandea: Erlezain eguna:

8:00etatik 9:00etara: Argazki rallyaren izenematea, Udaltelean.

10:00etan: Txistulariekin kalejira goizean zehar.

10:30ean: Jai hasiera. Gozogintza erakusketa - txapelketa.

11:00etan: Gipuzkoako VI. ezti lehiaketaren hasiera (bailarako txapelketetan sarituak aurkez daitezke milarorean).

12:15ean: Durrunbaren hasiera Aseginolaza Anaïen kaltetik.

12:30ean: Durrunba amaiera eta 'erlakumearen bilketa'.

12:45ean: Urteko erlezaina (Axintxio Karrera Garmendia amezketarra) omenduko da.

13:00etan: Gozogintza eta ezti lehiaketetako sari banaketak. Jarraian gozoki zein ezti dastaketa herrikoia egingo da. Aurkeztu diren, eskualdeko ezti finalisten dastaketa aukera, GEEko eztiak dohainik emango dira 'Kaiku' jogurtekin edo bertako ogiaz lagunduz. Goizean zehar egindako txokolatea banatuko da gozogileen eskutik.

14:15ean: Bazkari herrikoia, herriko Ostatuan. Bazkari, txartela 20 euro. Bertan erlezain ekipoa zozketatuko da. Izen ematea Zegamako udaltelean (Edurne 943 80 13 51), martxoaren 30 baino lehen.

18:30ean: Urrezko Aizkora lehiaketako kanporaketa (E.T.B. Kaiku Sari Nagusia). Gazteen txapelketa: J.M. Esnola J.Mindegia aurka. Helduen atalean, Jose Etxebeste Ugarteburu-Elorriagaren arteko kanporaketan irabazle ateratzen denaren aurka.

Ekintza osagarriak

Eguna alaitzeko beste zenbait jarduera osagarri ere antolatu dira.

- Txosnak: artisautza, produktu ekologiko, senda belar, ezti, argizari, propoleo, eta abar salgai izango dira.

- Talogileak.

- Herritar zein Elkarteen postuak (Aizkorriko Lagunen Elkartek adibidez) eta Gipuzkoako Erlezain Elkartearen (GEE) informazio gunea.

- Erlearen munduan erabiltzen diren tresnak erakutsi eta bertan erosteko aukera: erlauntz, auspo, espatula, estraktore, mozorroa eta abar.

- Erakusketa mugikorra, erlezaintza eta ingurugiroa. panel informatiboak kokatuko dira kalean.

- Erleak zuzenean: Jendearen jakinmina bete asmoz, kristalezko (PVC) kaja antzekoak erabiliaz, erleek erlauntzaren barruan izaten duten bizitza ikusi ahal izango da.

- Argazki lehiaketara aurkeztutako argazkien erakusketa.

- 'Argizaria lantzen' erakusketa praktikoa.

- Gipuzkoako ezti desberdinen dastaketa 'Kaiku' jogurtarekin batera.

- Txokolate beroa bertaratuentzat.

 **Jauregi**
TOLDOAK
BEASAIN
943 88 02 43 - 943 88 01 33



GENERALI
Aseguroak

IÑAKI ARIN BAZTARRIKA

Oriako Pasealekua, 20
943 88 87 02
BEASAIN

Eugenio Elortza eta Ageda Zeberio erlezainak

"Erlezainak erlearen familia indarrean eduki behar du loreen garairako"

Eugenio Elorza segurarrak 30 urte daramazki erleen munduan murgilduta. Kalitatearen Label zigiluarekin merkaturatzen du milalore txilardun eztia. Goierriko 2 urteetako txapelketak berak irabazi ditu. Ageda Zeberio emaztea alboan duela, eztiak gain, kandelak, polena eta propoleoa ere ekoizten dituzte.

Eugenio Elorzak zuen gaitasun batez ondorioz, medikuak egunero esnea eta eztia agindu zion. "Lehenengotan eztia kanpotik ekartzen hasi ginen, Burgostik. "Geroago etxerako eztia izateko erle batzuk jartzen hasi nintzen. Gauza batean hasi, itsutu, gustatu eta gehitzen joan nintzen". Gaur egun informazio gehiago dago erleen inguruan, baina hasiera ez zen erraza izan segurarrarentzat. "Gaur egun errazagoa da, informazio gehiago dago. Baina orduan informazioa jasotzeko, aitonaren bati galdetu behar zenion zeharrera. Gure aitonengandik gurera hutsune bat egon zen. Gu orain 30 urte hasi ginen eta ordutik hona asko ugaltu da. Gaur egun, elkarte hori dago, ikastaroak, liburuak... Ugaltu egin da erlezainen kopurua azken urteetan". Urte guzti hauetan asko ikasi du Eugenio Elorzak erlezaintzaz eta eztiak. Mundu liluragarria dudarik gabe erlearena. Eugeniok erlauntzan barneratu gaitu.



Eugenio Elorza eta Ageda Zeberio senar-emazteak. Erleak Segura inguruan izaten ditu, baina San Joanak aldera, "lorean gozoa, sasía, gaztaina lorea pasatzen denean, Arabako mendietara eramaten ditut erleak. Mendian, txillarra orduan hasten da eta".

Erreginaren esanetara

Erlearen mundua ezezaguna zaigunontzat lezioetxo eman digu Eugenio Elorzak. Familiaren eta enpresarekin parekatu du behin baino gehiagotik erlauntzako bizimodua eta zeregina.

Hiru erle motak osatzen dute familia: erregina, langileak (emea) eta alperrek (arra). Erreginak eramaten du etxeko martxa. Hori bai, "erregina txarra bada, erleak erabakitzen dute erregina aldatzea ere. Erreginak ondo funtzionatzen ez duela konturatzeko direnean, erreginkabi berria egiten dute eta erregina berria sortzen dute. Erregina zaharra hil edo etxetik bidaltzen dute. Hiltzen bada ez da familia partitzen baina alde egiten badu bai".

Erregina 5 urtean bizi izaten da. Arrautzak errutea izaten da bere egitekoa. "Lehenengo urtea ez da hain ona izaten, gaztetxoak da artean. Bigarren eta hirugarren ur-

tea dira bere sasoirik onenak. Laugarren eta bosgarren urtean zahartu egiten da, ahuldu, eta arrautzak ere gutxiago jartzen ditu. Eguna luzea denean, 2.000-2.500 arrautza jartzen ditu erreginak. Zahartutakoan, gutxiago".

Erregina berria, "hiru egun baino gutxiago daukan arrautzatik har txiki-txiki bat sortzen da. Kabia hazi egiten dute jalea realarekin, eta erregina sortzen da. Arrautza berdinetik sortzen dira erregina, langilea eta alperra. Kabiaren sabelaren arabera egoten da. Langileentzat neurri bateko sabela izaten da, alperrentzat handiagoa, potologoa izaten da eta, eta erreginarentzat, handiena. Ematen zaion janaren arabera ere izaten da."

Erle langilea, emea izan arren, antzua da, ez du arrautzarik erruten. Bera da enpresako langilea. Argizaria tiratu, ura ekarri, polena ekarri, gozoa ekarri... Erlauntza 35

graduak mantentzea ere bere lana izaten da "Bere kajaren barrua 35 graduak edukitze-ko lan egin behar du. Bero handiegia badago, bero hori ateratzeaz langilea ardura-tzen da". 40 eguneko bizi da erle langilea.


Alperre arrak da. Erregina ernaltzea da bere eginkizuna. Hori bai, erregina ernaltzeko duena izateko, beste alperrekin lehiatu behar da. "Lehen esaten zen ar batekin ernaltzen zela baina orain esaten dute 10-12k ernaltzen dutela. Ez da egunero ernaltzen aritzen. Bost urterako hazia hasieran hartzen dute". Hau da, ezkon bidaia antzeko bat egiten du erreginak. "Etxetik atera eta ezkonbidaia bezala egiten du. Urruti joaten da eta bere etxean dauden alperdeen atzetik ateratzen dira eta taldeko fuerteenak ernaltzen dute, ahulenak bidean gelditzen baitira. Erreginak bere bizi guztirako haziak hartzen ditu orduan".

Alperrek oso bizitza laburra du. Udazken-negurako hil egiten da. Hori bai, bizi den epe labur horretan ondo bizi da, besterik gabe, janean eta pasiatuz.

Familia indarrean

Neguan izaten dira kide gutxieneko familia. Eguna luzatzen hasten den neurrian, erreginak arrautza gehiago errungo ditu, lore garairako, enpresan ahalik eta langile gehien izateko. Erlezainaren lana da, erleen familia, ahalik eta indartsuen mantentzea. "Erlearen familia indarrean eduki behar da, eztia ez baitu erleak egiten. Eztia elaboratu

Intsektu emankorra



Elorzatarrek Seguran duten erlatokia.

egiten du. Eztiaren materia prima loreen gozoa da. Loreen gozoa papoan ekartzen du eta jende asko behar da horretarako". Erlezainak zein lan egin behar izaten duen kontatu ditu Elorzak. Konparazio batekin argitu digu. "Garai honetan adibidez, gela bakarra dute erlauntzan. Ezkon berrietan gela bat nahikoa dute baina familia hazten ari den eran, ume asko etortzen badira, gela gehiago behar ditu. Kabitu ezin badira, bakarren batzuk etxetik alde egin beharko dute. Erleei hori gertatzen zaie. Adibidez: Momentu honetan, 10.000 erle egongo dira. Erreginak gero eta arrautza gehiago jartzen ditu, eguna gero eta luzeagoa baita. Familia hazten ari da. Ezia egin behar duten garaian, etxe batean, 50.000-60.000 erle egon behar dira. Gela batean ezin dira horiek dena sartu. Erlezainak, garai egokian, gela (emendakinak deitzen zaie) gehiago jartzen asmatzen ez badu, eta kabitu ezinik badaude, erreginkabi berriak sortu eta familia hori puskatu egiten da. Milaka horiek egon beharrean, familia txikitu egiten da eta langile gutxi egongo dira loreen gozoa ekarri behar duenerako. Ahalik eta lanik gehiena egiteko, familia eroso bizi dadin saiatu behar da erlezaina, behar adina gela jarri".

Hori bai, erlezainaren esku ez dagoena eguraldia da. "Denak ondo koinziditzen badute uzta ona izango da, bestela erdipurdikoa. Iazko uda orain bi urtekoa baino hobea izan zen. Duela bi urtekoa bustia eta hotza izan baitzen. Iazkoarekin gustura gelditu nintzen joan zen uda ikusita".

Gizakiarentzat eta naturarentzat oso aberatsa da erlea. Alde batetik, erleak berak ekoizten dituen ezia, polena, jalea erreala, propoleoa eta argizariagatik; eta bestetik, naturari, polenizazioan egiten dion onuragatik.

Uzta aberatsa

Gure artean ezagunenak ezia eta argizaria badira ere, arrakasta handia duten propoleoa, polena eta jalea erreala ere ekoizten ditu erleak. Eugenio Elorzak, Ageda Zeberio emaztearekin ezinbesteko laguntzarekin, argizari lanak, ukenduak, polena, propoleoa eta ezia bera merkaturatzen dituzte.

Erredura, gaiztotutako zauri eta golpeentzako ukendua esaterako, San Joanak aldean egiten du Agedak, hilberan, argizariarekin eta dozena bat belarrekin. Kalendula ere egiten dute soriaisia eta azaleko gaitzak arintzeko.

Propoloaren esentzia ere prestatzen dute, alkoholarekin nahastuta. "Arbolaren hostoa ateratzen denean, edukitzen duen begitik jasotzen duen erretxinaren moduko bat. Erleek kaja barnizatu bezala egiten dute. Propoleoz estaltzen dute. Zirrituak ixteko jartzen dute propoleoa. Alkoholarekin nahastuta, esentzia egiten dugu", argitu digute.

Argizaria egiteko garaia udaberria izaten da. Nondik sortzen den jakin nahi izan dugu: "erleak tripan poro batzuk edukitzen ditu eta 22-23 gradu daudenean, eguna

luzatzen denean, beraien kabiak egiteko, gorputzetik ateratzen dute argizaria". Argizariarekin besteak beste, kandelak egiten dituzte.

Jalea erreala ere erleek duten sustantzia da. Elorzatarrek ez diote erleari jalea errealik kentzen. "Gutxi edukitzen dute eta beraiek jalea bizitzeko behar dute, umeei emateko eta abar".

Gozogintza

Eztiaren kalitatea asko hobetu da erlezainen elkartek egindako lanari esker. Eztiaren kontsumoa bera, oso pixkanaka bada ere, goraka omen doa. "Jendeak oraindik ere katarroa denean hartzen du ezia esnearekin. Azukrearen lekuan ezia erabiltzen duen jende gutxi dago", dio Eugenio Elorzak.

Elorzatarren etxean azukrearen lekua eztiak betetzen duenaren lekuko, Ageda Zeberio, Zegaman ospatzen den Erlezainen egunean ez-tiz egindako gozogintza

lehiaketa irabazi izana da adibidea. Duela bi urte, Ageda Zeberio irabazi zuen, ez-tiz egindako sagar tartarekin. Aurtengoan pastaren batzuk aurkezteko asmoa dauka. Azukrearen orde, ezia erabiltzen du Agedak. Membri-lloaren ere egin izan du ez-tiarekin.

Polinizazioa

Azkenerako utzi badugu ere, erleak polinizazioan duen garrantzia ez da gutxiagorako. Ingurugiroarekin lotuta, polenizazioarentzat oso garrantzitsuak dira erleak. "Erleak ingurugiroari egiten dion ekarpena handia da. Lorea ernaltzen laguntzen du erleak. Inbernadoreetan ere erleak jartzen dituzte polenizazioa egiteko. Sagarrondoak dituztenek, Lleida aldean esaterako, erlezainei ordaindu egiten zaie. lora garaian, erleak sagastian edukitzeagatik, polenizatzen laguntzen dute eta", azpimarratu du Eugenio Elorzak.

Gazte Topagunea'04 ospatuko da Itsasondon, apirilaren 9tik 12ra

Milaka lagun gerturatzea aurreikusten dute antolatzaileek

Gazte Topagunea, bigarren aldiz Goierri ospatuko da aurten. Itsasondon hain zuzen ere. 1996an Zaldibian egin zen Gazte Topagunea. Milaka eta milaka gazte biltzen dituen ekimen honen xehetasunak biltzen dira ondorengo lerroetan. 'Gu gera herria, egin dezagun bidea!' lelopean, aisialdiaz gozatzeko aukeraz gain, gazteekin eta Euskal Herriarekin lotura duten gaiak eztabaidatzeko lekua izango da Itsasondo.

Aste Santuan, apirilaren 9tik 12ra, milaka eta milaka gazteren topalekua izango da Itsasondo. Gazte Topaguneak 10.000 gazte biltzea aurreikusten du. Hainbeste jenderentzat eta hainbeste egunetarako ahalik eta zerbitzurik eta ekitaldirik gehien eskaintzeko lan handia egin behar izaten da eta Goierriko hainbat gazte horretan ari dira buru belarri azkeneko hilabetee-tan.

Itsasondora iristeko tren erabiltzea gomendatzen du Gazte Topaguneak. San Joan-dik Jaso lantegira arteko errepidea itxita egongo da egun hauetan. Itsasondoko bizilagunek bakarrik izango dute bide hori erabiltzeko aukera.

Akanpalekua

Gazte asko eta asko kanpin dendetan egoten dira egun



San Joan auzoan kokatuko da akanpalekua.

hauek pasatzen. San Joan auzoan, prestatuko dute 5.000 lagunentzako akanpalekua, garbileku, dutxa eta komun zerbitzuekin.

Gaztetxea gunea

Itsasondoko aparkalekuan kokatuko da Gaztetxea gunea. Gune ezberdinak izango dira bertan:

- **Kafe karpa:** Goizeko 9etatik gaueko 12ak arte egongo da zabalik. Gosariak eskainiko dira. Lasai egoteko gunea izango da. Prentsa, aldizkariak eta abar irakurtzeko aukera egongo da. Mahai jo-koak ere aukeran izango dira.

- **Zinema karpa:** goizeko 11etatik gaueko 10etara, Euskal Herrian egindako laburmetraiak, dokumentalak eta filmak ikusteko aukera izango da bertan.

- **Musika karpa:** mota ezberdinetako musikaren lekua izango da, arratsaldeko 6,30etatik aurrera.

- **Rokodromoa:** eskalatzeko rokodromoa prestatuko da.

Karpez gain, edari eta janari txosna bana egongo dira gune honetan.

Euskal Herria gunea

Itsasondoko plaza eta pilotalekua izango dira Euskal Herria gunearen ardatzak. Hori bai, hiru zatitan egongo da banatua. Gazte Topaguneak jakinarazi duenez, lau egunetan udaletxean EHNA tramitatze-ko aukera egongo da.

- **Komunikazio gunea.** Udaletxearen aurreko plazan kokatuko da. Ordenadore zerbitzuak eskainiko da..

- **Txosna erraldoia.** Bidearen beste aldean egongo den karpan, txosna erraldoia egongo da.

- **Otartetokoen gunea.** Pilotalekuan otarteko mota ezberdinak jateko aukera egongo da. Antolakuntzakoek ahalegin berezia egingo dute otartetokoen eskaintza zabala izan dadin. Ordutegi oso zabala izango du gune honek. Mahaiak eta aulkiak jarriko dira bertan.

Karpa erraldoia

Jaso lantokia baino lehen, errekan egindako bete lanaren ondorioz sortu den zabalgunean, karpa erraldoia jarriko da. Gazte Topagune bate-

an inoiz jarri den karparik handiena izango omen da, 20.000 lagun sartzeko modukoa. Karparen kanpoaldean bospasei txosna jarriko dituzte. Ostiralean sagardotegi erraldoia jarriko eta kontzertu nagusiak bertan egongo dira.

Bestelako zerbitzuak

- Aurtengo topaguneak, kalitatezko janari zerbitzua eskaintzea du helburua eta otartekoez gain, ostiralean eta larunbatean, 1.500 lagunentzako eguneko menua eskainiko dute. Dena den, kokalekua oraindik ere zehaztu gabe dago.

- Ohiko anbulantzia zerbitzuez gain, osasun gune iraunkorra herriko plazan kokatuko da, sendagile eta erizainekin.

- Topaguneko materiala saltzeko herri denda jarriko da Nautiko tabernaren ondoko lokalean.

- Herriko hainbat lokaletan tabernak jarri nahi dituzte antolatzaileek. Izan ere, herrian taberna bakarra baitago.

- Eztabaidarako gune bat ere jarri nahi dute antolatzaileek, baina informazio hau idazteko orduan, oraindik zehaztu gabe zegoen kokalekua.

Bonoak

Topagunerako bonoak salgai daude Goierriko puntu ezberdinetan. 33 euro ordainduta, lau egunetako kontzertuetara joateko aukera izango da. Zaldibiako Joxepane tabernan, Ordiziako Herrikoan, Beasaingo Arranon, Segurako Elorripen... daude salgai.

Egitaraua

gunez gune, egunez egun

Gaztetxe gunea:

Ostirala 9:

17:00etan: Mahai ingurua: 'Musika mugimendurik bai Euskal Herrian?'.

18:30etan: Kontzertua: 'Audience'.

19:00etan: Laburmetraia emanaldia.

22:00etan: Kontzertu-ikus-kizuna: 'Logela eta Non Demontre multimedia'.

Larunbata 10:

11:00etan: Laburmetraia, graffiti, serigrafia, elektrizitate eta eskulan tailerrak.

11:00etan: autoestimu tailerra.

12:00etan: Mahaingurua: 'Espazio liberatuen defentsa'.

14:00etan: Laburmetraia emanaldia.

16:30etan: Mahaingurua: 'Drogak'.

18:00etan: Break Dance erakustaldia.

19:00etan: Filmea + konferentzia.

21:00etan: Kontzertua: Hip-hop + reagea.

Igandea 11:

11:00etan: Laburmetraia, graffiti, serigrafia, elektrizitate eta eskulan tailerrak.

12:00etan: Mahaingurua: 'Gaztetxe edo gazte gune ba-

ten autogestiorako irizpideak'.

16:30etan: Hitzaldia: 'Konsumoa kontrabotere bihurtuz'.

18:00etan: Mahaingurua: 'Musika mundu ikuspegi ezberdinetatik'.

21:00etan: Kontzertua: Dirties eta Captain nemo.

Astelehena 12:

11:00etan: Graffiti eta serigrafia tailerrak.

12:00etan: Laburmetraia aukeratuen emanaldia.

17:00etan: Kontzertua la-saia.

Euskal Herria gunea:

Ostirala 9:

16:00etan: Harrera eta aurkezpena.

17:30etan: Hitzaldia: 'Munduko beste borrokek'.

Larunbata 10:

11:00etan: Bideoa: '25 urte borrokan... eta segi aurrera'.

11:00etan: Hitzaldia: 'Euskal Zibilizazioa'.

16:00etan: Nazioarteko ordezkarien mahaingurua.

16:00etan: 'Emakumea eta Feminismoa iraultza eta askapen mugimenduan'.

19:00etan: Kapitalismoaren sorrera eta garapena.



Gazte Topagune batean inoiz jarri den karparik handiena jarriko da, erreka bazterrean, Legorreta bidean.

19:00etan: Euskararen berrekurapenerako borroka.

Igandea 11:

11:00etan: 'Gazte borrokek munduan'.

11:00etan: Hitzaldia: 'Ikasle mugimendu nazionala'.

13:00etan: Aberri Egunekeo ekitaldia.

16:00etan: 'Naziotasuna ardatz, intsumisioa bidea'.

16:00etan: 'Etorkinak eta nazio eraikuntza'.

Astelehena 12:

11:00etatik 13:00etara: Hitzaldia: 'Egoera politikoa'.

13:00etan: Bertso saioa.

Komunikazio gunea:

Ostirala 9:

16:00etan: Gunearen irekiera. Erakusketak, internet zerbitzua eta bideoak egongo dira.

20:00etan: Zine albistegia.

Larunbata 10:

11:00etan: Komunikazio tailerra. Web orriak egiteko tailerra.

13:00etan: Hitzaldi-eztaba: 'Gazteok eta komunikazioa'.

16:00etan: Xirika aldizkariaren aurkezpena.

18:00etan: Komiki tailerra.

18:00etan: Mass medien inguruko hitzaldia.

20:00etan: Zine albistegia.

Igandea 11:

11:00etan: Interneten Linuxekin ibiltzeko ikastaroa.

12:00etan: 'Euskal Herriko esparru komunikatiboa'.

16:00etan: 'Sare esperientziak, nazioartean zein munduan'.

17:00etan: 'Internet eta iraultzak (Ciberfeminismoa)'.

17:00etan: Aldizkari tailerra.

20:00etan: Zine albistegia.

Astelehena 12:

12:00etan: Tailerra: 'Gazte eta helduen arteko komunikazioa'.

Karpa erraldoia:

Ostirala 9:

20:00etan: Sagardotegi erraldoia.

21:00etan: Kontzertua: Lor, Betagarri eta Parabellum.

Larunbata 10:

21:00etan: Kontzertua: Fermin Muguruza Kontrabanda, Su Ta Gar eta S.A..

Igandea 11:

20:00etan: Ekitaldi politikoa.

21:00etan: Kontzertua: Kuraia, Berri Txarrak, Banda Bassoti eta talde sorpresa.



Itsasondo plazan Euskal Herria gunea kokatuko da.

Aste Santuko ospakizunak Seguran

Aste Santua fedez eta tradizioz ospatzen dute Seguran eta herritarrak Ostegun eta Ostiral Santuko prozesioak prestatzen ari dira. 350 herritar inguruk hartuko dute parte prozesioetan. Aurten San Migelez jantziko dena ere aukeratuta dago: Ander Egaña. Jarraian duzue egitaraua.

Apirilak 4: Erramu igandea:
11:45ean: Erramu bedeinkatzea.
12:00etan: Meza Nagusia Parrokian.

Apirilak 8: Ostegun Santua:
17:00etan: Azken Afariko Meza parrokian.
18:15ean: Prozesioa.

Apirilak 9: Ostiral Santua:
08:00etan: Gurutz Bidea Santa Engrazitik Sorkundetar Komentura.
16:30ean: Jaunaren Nekaldiaren Ospakizuna, Gurutzetik jaitea Parrokian.
18:15ean: Prozesioa.

Apirilak 10: Larunbat Santua:
21:00etan: Meza Santua Sorkundetar komentuan.

Apirilak 11: Pazko eguna:
12:00etan: Meza Santua.



Turismo bulegoa irekita

Gaur egun Aste Santuarekin batera opor egunak izaten dira eta batera eta bestera mugitzeko ere aprobetxatzen da. Goierriara ere turista asko etortzea espero da, bertako kulturaz eta naturaz gozatzera. Segura bera gertuagotik eta barrutik ezagutzeko aukera izango du turistak, turismo bulegoa irekita egongo baita apirilaren 8tik 18ra, Ardixarra etxean. 11:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 19:00etara egongo da irekita. Ardixarra XVI. mendeko etxea da eta bera ere ikusi ahal izango da. Bertan, Segurako historiaren inguruko ikusentzunezkoa prest dago.

Erakusketa lekua ere bada Ardixarra eta datozen egunetan bi izango dira ikusgai: apirilaren 7tik 21era, 'Ibaialde' eta apirilaren 11ra bitartean, 'Baratze kritikoa'.

Pasoen erakusketa

Parrokian, apirilaren 10etik 16ra bitartean, hainbeste urte dituzten Aste Santuko pasoa gertutik ikusteko aukera izango da, 12:00etatik 13:00etara.



amatriain
f r u t a k

Tel.: 943 80 11 77
Zurbano kalea 22, behea
SEGURA

SANTA BARBARA
karrozategia

Juan Mari Oiarbide

Kale Nagusia ☎ 943 80 11 60
SEGURA

ANTONKALE
EDARITEGIA

SEGURA



F.M. 89.2


EGUNEKO 24 ORDUAK ZUREKIN

Segurako Eliza eraberritzeko lanak

Aste Santurako bukatuta egongo dira

Bobeda eta teilatua konpondu dira

Maiatzetik hona itxita egon da Segurako eliza, bobeda eta teilatua konpontzeko lanak egiten aritu baitira. Bitarte horretan, komentuan egin dituzte elizako ospakizunak. Hori bai, Aste Santurako, dena txukun- txukun bukatutako izango omen da.



Segurako eliza teilatua berrituta.
Donostiako 'Güires' enpresak egin ditu lanak.

1680. urtean bukatu ziren Segurako Elizako obrak eta harrezkerotik, konponketa lan handiegirik egin gabe egon da. 2003 urtean hasita, ordea, bobeda eta teilatua konpondu dituzte. Laureano Telleria eta Jose Luis Etxeberria segurarak eman digute zaharberitze lan honen berri. "Bobedatik puskak erortzen hasi ziren. Dezentekoak erori ziren. Beti arriskua zegoen. Duela bi urte sarea jarri zuten arriskurik gehien zegoen lekuan. 22 metrora dago bobeda eta behetik ez da ikusten baina aldamioak jarri ziren garaian ikusi zen egoera txarrean zegoela". Maiatzean hasi ziren bobeda berritzeko lanak.

Berrikuntza batek bestea eskatzen duela esan izan da eta Seguran ere hala gertatu da. "Arkitektoak ikusi zuen

bobedaren egurrak eta teilatuko egurrak elkarren gainean zeudela. Arkitektoak zioen egur horiek ez zutela elkar ikutu behar". Hori dela eta, irailean, bigarren fase batean, teilatua konpondu eta sendotzen hasi ziren. Duela 7 urte teila berriak jarri ziren, baina "teila korrituta, mugituta eta puskatuta zeudela ikusi zen. Teila txarra zen. Portugaldik ekarria omen zen. Orain jarritako teila Toledotik ekarri dute". Hori bai, bermearen edo garantiaren barruan zegoen oraindik eta txukun erantzun dute ardura-dunek.

Lan ikusgarria

Bai bobeda konpontzen eta bai teilatua konpontzen ere lan ikusgarria egin dutela esan digute segurarak.

Bobedaren kasuan, "harriari zuloa egin taladroarekin eta banan-banan, 6ko inosidablezko barillak sartu dizkiote", dio Etxeberriak.

Teilatuaren kasuan, oinarria sendotu da, 45 zentimetra altxatuta. "Ganbarako egur guztiak askatu eta pilotalekuan utzi zituzten. Egur zahar asko aprobetxatu egin dituzte. Izugarritzko loturak zeuzkaten: metro bateko iltzeak bazeuden, 80 zm-ekoak, 70ak... errementariaren batean egindakoak ziren. Zuzen asko zeuden iltzeak!", dio Telleriak. Haritzeko egurra da Segurakoa. 12 metroko egurrak ere azaldu dira. Hondatuta zegoen egur gehiena, hezetasunagatik kaltetuta omen zegoen. "Pentsa 1680. urtetik hona zenbat itokin izango zen!", esan du Laureano Telleriak. "Bobeda ere itokin

horietatik hondatuko zela esan digute". Behin aldamioak jarrita, alturako lan gehiago egiteko ere aprobetxatu da: erlojua margotu, kanpaia-ren mailuak konpondu, tximistorratza jarri, erdiko lanparari kable berriak jarri...

Gastu handia

Miloi askotako lanak egin dituzte Seguran. Pezetetan hitz eginda, 150 milioi pezetatik gorakoak. Bobeda konpontzeko herriari eskatu zaio zati bat eta oso ondo erantzun dute segurarak. Monumentu historikoa den momentutik, laguntza bereziak ere izan dituzte. Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Jauralaritzak lagundu dute baina gainerakoa ahal den bezala ordaindu beharko dutela adierazi digute Etxeberriak eta Telleriak. "Herriari ez dago berriz eskatzerik. Gipuzkoako laugarren elizarik handiena da. Baina biztanlez herririk txikiena". Elizaren goi aldea konpondu dute segurarak, baina aurrera begirako beste eginkizun batzuk ere badira. Esate baterako, aldarea konpontzea, barruan harria ateratzea, kanpoko harria garbitzea... Dena den, pixka bat itxaron egin beharko dute. Garrantzitsuena hori bai, eginna dago: teilatua sendo baita go.



SEGURAKO UDALAK Aste Santuko ospakizunetan parte hartzera gonbidatzen zaituzte gogoraraziz, **Ardixarra Etxean zerbitzu turistiko ezberdinak** eskura dituzuela: Historiaren ikuskaria, naturaren inguruko erakusketak martxoaren 18tik apirilaren 11arte eta Pazko Astean 12:00tatik 13:00tara Pasoak ikusteko Parrokia irekita egongo dela.

Araba da aurtengo protagonista

IX. Iparra-Hegoa kultur jardunaren azken txanpa Seguran

Asteaz zehar izandako hitzaldien bitartez Araba herrialdea gertuagotik ezagutzeko aukera izan ondoren, asteburuan, izango dira IX. Iparra-Hegoa kultur jardunaren ekitaldi nagusiak.

Segurako Elorri Elkartek eta Iparraldeko hainbat kideek antolatutako Iparra-Hegoa kultur jardunaren asteburuan amaituko da. Euskal Herriko probintzia ezberdinetako kulturak elkartuko dira asteburuan Seguran. Antolatzaileek dioten bezala, "Euskal Herri osoko kultura, hizkuntza, arazoak, ondasunak eta ohiturak ezagutzeko eta trukatzeko oso okasio interesgarria da Iparra-Hegoa". Jarraian dituzte asteburuko ekitaldiak.

Martxoak 26, ostirala: haurren eguna:

Araba Errioxako Lapuebla, Lantziego eta Oiongo ikastolako eta Arabako Lautadako Añanako Herri Eskolako haurrak etorriko dira Segurara, bertako eskolakoekin eguna pasatu eta harremanak sendotzeko. Aurrenekoa den, orain arte Iparra-Hegoaren aitzakiapean harremana egin izan duten Lapurdiko Senpe-



reko Ikastolakoak eta Nafarroako Lodosa, Tuterako eta Irunberriko ikastolako haurrak ere etorriko dira. Arratsaldean, Porrotx pailazoa izango da giroa alaitzen eta ikastola bakoitzeko haurrek beraien ikuskizuna eskainiko dute. Ondoren, buruhandiak eta txokolate jatea izango dituzte.

Gau partean, 22:30ean, Lapurdiko Elaudi folk musika taldearen kontzertua izango da, plazan jarritako karpin.

Martxoak 27, larunbata:

Goizean, margolari 'nobel' en lehiaketa jokatu da. Goizeko 9ak eta 13:00ak bitartean, herriko txoko ezberdinak margotu beharko dituzte margolariak.

11:00etan, haurrentzat tailerrak izango dira.

Arratsalde partean, 4etan, Segura eta Lapurdiren arteko kirol lehiaketak izango dira. Tartean, pilotan, haurrak eta nagusiak lehiatuko dira. Boteluzearen erakustaldia ere egingo da. Jarraian, futbol partidua jokatu da.

19:00etan, Araba protagonista izanik, ezin ardorik falta. Samaniegoko eta Eskuernagako ardoak dastatzeko aukera izango da. Segurako taloak eta Gesaltzako pintxo bereziak ere aukeran izango dira.

Gauean, azkenik, Iratxo taldearekin dantzaldia izango da. Lapurdiko Kuxuxtu txaranga eta Gesaltzako Fanfarea ere giroa alaitzen ariko dira.

Martxoak 28, igandea:

Txistulariak, trikitilariak, joaldunak eta gaiteroak giroa alaitzen hasiko dira. Astogurdia haurrak paseatzen ere ibiliko da.

11:00etan hasita, nekazaritza produktu eta artisau azoka izango da. Segurako eta eskualdeko baserriko produktak; iparraldeko gazta, ahatxikiak, ostrukakiak; Araba Errioxako ardoa eta olioak; eta Añanako kristala, gatza, eztiak eta gazta izango dira salgai.

12:00etan, Hendaia Aklarre elkartearen Gurea dantza taldea eta Gesaltzako dantzariak izango dira.

13:00etan, Getariako txakolin dastatzea egingo da.

14:00etan, kerizondoko ekitaldia egingo da. Dantzariak, musikariak eta bertsoak izango dira. Aurtengo gonbidatu berezi bat izango da: Maixan Merkapide behenafartarra, Euskal Konfederazioko Lehendakaria.

14:30ean, herri bazkaria izango da. Goizean zehar prestatutako gixatu lehiaketako sariak bazkalondoren banatuko dira. Kuxuxtu txaranga izango du giroa alaitzeko ardura.

Arratsaldean, azkenik, mutxiko dantzak eta erromeria izango dira.

LEIAR
KRISTALDEGIA

ERAKUSKETA:

Ezkiaga Pasealekua z/g ☎ 943 88 88 24

BILTEGIA:

Salbatore Industrialdea ☎ 943 88 60 70
BEASAIN



OTATZA SAGARDOEGIA

Aste guztian zabalik, asteazkena ezik
Larunbat eta igandeetan eguerdiz ere irekita
(asteaz zehar eguerditan enkarguz)

Apirila bukaera arte sagardotegia
Maiatzetik aurrera erretegi bezala irekita

☎ 943 80 17 57 **ZERAIN**



ETXE-ZYRI

SAGARDOTEGIA - JATETXEA

Martxoaren 30etik aurrera
indar berriz gatzoz

943 88 20 49 -- OLABERRIA



Sagardotegia

Bertako sagarrarekin
egindako sagardoa
txotxetik urte osoan

Eguneroko menua

Astelehenetik ostiralera

7€

Ospakizunak

Jaunartzeak, bataioak,
enpresa bazkariak...

Igandeetan enkarguz

MULTIOPTICAS

al-aire
armazoa

88€

eta
eguzkitako
betaurrekoak
opari

LEHENA ZERBITZU OPTIKOETAN

R.D.S. Nº 16499 I.L.G.

Ibargarai 16
Tel.: 943 76 15 75
BERGARA

J. Carlos Guerra 1
Tel.: 943 79 29 95
ARRASATE

J.M. Barandiaran Enp.
Tel.: 943 88 99 88
ORDIZIA

Bidebarrieta 2
Tel.: 943 20 05 22
EIBAR

Esmalteria Plaza
Tel.: 943 51 78 11
ERRETERIA

Mendibil M. G.
Tel.: 943 63 99 01
IRUN

San Frantzisko 23
Tel.: 943 69 84 70
TOLOSA

GAZTE TOPAGUNEAK 04' ITSASONDO

Apirilak...9, 10, 11, 12



gu gera herria, egin dezagun bidea

Gaztetxea, kafe karpa, zinema, musika eztabaida, Logela + Non Demontre, Kuraia, Reage + hip hop, komunikazio guneak, irratia, gazte esparru komunikatiboa, internet, tailerrak, zine albistegia, EH gunea, nazioarteko ordezkaritza, intsumisioa, erakusketa, inmigrazioa, karpa erraldoia, sagardotegia, Fermin Muguruza Kontrabanda, Berri Txarrak, Su ta Gar, S.A., Betagarri, Kokein, jantokia, egunero 1.500 laguentzako eguneko menua, astelehena ate irekiak...

Bonoak herrietan salgai!

V. Igartza literatur bekaren emaitza:

Julen Gabiriak 'Han goitik itsasoa ikusten da' eleberria aurkeztu du Igartza jauregian

Lehenengo aldiz, Beasaingo Igartza jauregian bertan aurkeztu zen bertako Udalak antolatutako Igartza literatura sorkuntzako bekaren bosgarren liburua. Aretoa jendez beteta, soinu eta hitzez girotuta, Julen Gabiria idazleak, 'Han goitik itsasoa ikusten da' liburua aurkeztu zuen, martxoaren 17an, Igartzan sortutako giroaz txundituta.

Beasaingo Udalak, Elkar argitaletxearekin eta CAF enpresarekin elkarlanean antolatzen duen literatura sorkuntza beka uza emankorra ematen ari da. Idazle berriak sortzeko helburuarekin antolatutako lehiaketa honi esker, euskal literaturan hain ezagunak diren idazle gazteak sortu dira: Julen Gabiria, Unai Elorriaga, Jasone Osoro, Fernando Morillo, Jon Arretxe eta Xabier Etxeberria tarteko.

Julen Gabiria galdakoa-rrak bi aldiz irabazi du Igartza literatur beka. Lehenengo edizioan 'Connemara gure bihotzetan' liburua argitaratu zuen. Martxoaren 17an Bea-



Ezkerretik eskuinera: Patxi Plazaola Beasaingo alkatea, Julen Gabiria idazlea, Xabier Mendiguren Elkar argitaletxeko editorea eta Aitor Aldasoro Beasaingo udaleko Euskara zinegotzia.

sainen aurkeztu zuen lana, bosgarren literatur bekari dagokiona izan zen: 'Han goitik itsasoa ikusten da'.

"Jende txikiaren gauza handiak"

Euskal Herrian gerra aurreko urteetan hasi baina, batik bat, II. Mundu Gerra bitarteko Italian gertatzen da istorioa, eta bizikleta da bi mutur geografiko horiek lotzen dituen aitzakia. Roman Alberdi multikoak Euskal Herriko itzulian ikusi du lehenengoz Gino Bartali txirrindulari handia; erbestera bidalitako umea dela Frantziako Tourrean topatuko du hurrena, Alpeetako mendi bat igotzen biak, eta haren bila joango da geroago, Toskanako Ponte a Ema herrira. Pertsonaia "txi-

ki" ugari aterako dira liburuan: zinemazalea, okina, fraidea, marinela, judua... guztiak ere Toskanan barneratuak. "Bartali da 10 urteko tartean Tourra bi aldiz irabazi duen txirrindulari bakarra. 10 urtean maila hori mantentzeko badago misterio bat, han eta hemen arakatzuz, aurkitu dudana. II. Mundu Gerra garaian, txirrinduaren tubularretan juduentzat dokumentu faltsuak eramaten zituen juduak izkutatuta zeuden monastegi batera. Judu asko salbatu zituzten Bartalik eta beste jende "txiki" askok". Beraz, bi aldarrikapen egin nahi izan ditu idazleak: bate-tik, jende txikiaren gauza handiak kontatzea eta beste-tik, injustizia egoera batean iraultza eta matxinada beharrezkoak direla.

Zazpigarrenaren oinarriak kalean

Beasaingo Udalak, Beasaingo CAF enpresaren babesarekin eta Elkar argitaletxearen laguntzarekin, euskal kultura zabaldu eta idazle gazteen lanari laguntza emateko asmoz, VII. Igartza Literatura Sorkuntzako beka sortu du idazle berrientzat. Bekak, 6.000 euroko diru-laguntza izango du.

35 urte baino gutxiago izatea eta aurretik bi liburu baino gehiago argitaratuak ez izatea da baldintza. Proiektuak, 2004ko uztailaren 1era arte bidal litezke Beasaingo Udaletxera: Euskara Zerbitzua Udaletxea Loinazko San Martin plaza.

Deialdi honetara, narraitibako lanak egiteko proiektuak aurkez litezke, jatorrizkoak eta euskaraz sortuak, beren zatiren bat edota osotasuna inon argitaratu gabea dutenak, sari-tuak izan ez direnak eta beste inondik moldatuak ez direnak.

Julen Gabiriak, Jasone Osorok eta Xabier Mendiguren Elizegik osatu dute epaimahaia.



Nafarroa
Etorbidea, 9

☎ 943 88 94 82

BEASAIN



aulia
TOLARE
SAGARDOTEGIA

Aulia-enea

☎ 943 80 60 66 LEGORRETA



KAMIXETA ESTANPAZIOA
FOTOKOPIAK KOLORETAN

☎ 943 02 73 58 Faxa: 943 02 79 39
San Inazio, 5 BEASAIN



Juanjo Iturralde eta Amaia Lerga onenak

Tafalla Igeriketa Klubekoak biak ere, nafarrak nagusi Hegats Igeriketako Nazioarteko IV. Openean. 150 igerilari inguruk hartu zuen parte goiz eta arratsaldeaz jokatu zen proban eta azkenik, honelako probetan irabazlea hautatzeko erabiltzen den taula aintzat hartuta Amaia Lerga emakumezkoetan eta Juanjo Iturralde gizonezkoetan gailendu ziren.

Juanjok 833 puntu lortu zituen, urgaineko 50 metroko proban lortutako markaren ondorioz. Bigarrena Maciek Kurdek poloniarra sailkatu zen 806 punturekin eta hirugarrena Christian Wanger alemaniarra 806 punturekin

baina aurrekoak baino ehuneko gehiago erabilita. Azken biok urgaineko 400 metroko proban lortu zituzten puntuok. Amaia Lergak, aldiz, 748 puntu lortu zituen urgaineko 100 metroan egindako denborarekin, bigarrena Katharina Lorks alemaniarra izan zen 739 punturekin eta hirugarrena Dolors Pradell kataluniarra 721ekin.

Ordizia K.E. Urpekoak taldekoek ez zuten podiuma zapaltzerik izan baina taldeko arduradunek adierazi dutenez ez da kezkatu beharrekoa, oso jende gaztea baita baina hemendik gutxira fruituak emango dituen.

Aitor Calvillo

Hauteskunde emaitzak

Jarraian Espainiar Estatuko Hauteskunde Orokorretan Ordizian izandako emaitzak. Parentesi artean orain 4 urteko emaitzak: EAJ 1.548 (1.202), EA 619 (726), PSE-EE 969 (909), PP 646 (901), EB 382 (266), AZ 325 (-), besteak 48 eta baliogabeak 854. Orain 4 urte abstentzioa %44,18koa izan zen eta oraingotan %26,31koa.

Trafiko oharra

Udalak jakitera eman du hemendik aurrera Filipinas kalea norabide bakarrekoa izango dela. Beraz, Ordiziara sartu nahi duten ibilgailuek Filipinas kalea hartu beharko dute eta irtetera doazenean, aldiz, ibaiaren kontra doan Bizkaia kaleko errepidea.

Elkarte arteko musa

XXV. edizioa amaitu berri da eta bertan Txapel Gorri Elkarteko Cesar Garcia eta Martin Garmendia bikotea gailendu da. Finallean arerio Goiz Aterpeko Unai Sanz eta Joseba Auzmendi. Larri-larri baina azkenean 3-2 Txapel Gorrikoak nagusi. Elkar-te artekoan ere Txapel Gorri izan da garailea. Antolaketa lanak aurtengoan Mendizaleak Elkarteari egokitu zaizkio.

Urdanetan dantza taldea Herri Antzokian

Gaur bertan, ostirala, Urdaneta Dantza Taldekoen saioa ikusteko aukera izango da Herri Antzokian. Arratsaldeko 7etatik aurrera, ohiko dantzez gain, hainbat musika talde ezagunen kantak hartu eta era berezian prestatutako koreografia eskainiko dute Urdaneta dantza taldeko gaztetxoek. 9 eta 13 urte bitartekoak izango dira dantzariak.

Artzain eguna

Peri berezia izango dugu apirilaren 14an. Arkume eguna ospatu zen orain gutxi eta orain artzainei dagokie txanda. Ohiko periaz gain Idiazabal gazta kanpaina berria aurkeztuko da, gaztaren inguruko peri berezi bat egingo da eta ohi bezala artzaintzarekin loturiko erakustaldiak izango dira. Herriko kaleak ere ardiz beteko dira, transhumantzia ospetsua gertatuko baita.

Antzerki garaia

Aurtengoarekin amaitzeko 't(arte)an' taldeak 'Sonata segundu batean...eta piku' lana antzestuko da apirilaren 2an. Saioa Herri Antzokian izango da gaueko 10,15etan. Bertan musikari trebe baten istorioa kontatuko da. Bizitzaren kapritxo bategatik show-bussines-ean arrakasta izatera iritsi ondoren matxinatu egin nahiko luke, baina ez daki nola.

Bertso afaria

Agin Rezola, Iñaki Viñaspre, Oihana Bartra, Antton Fernandez, Beñat Lizaso eta Gorka Iribar bertsolari gazteak martxoaren 27an Argi Berri Elkartean. VII. Argi Berri saria jokoan eta baita Osinalde Sarirako finalerako bi txartela ere.

Harmailak Trebijanon

Altamirako kirol gunea eraberritzeko erabakia hartua du jada Udalak. Ahal bezain laster bi belarrezko zelai berri egingo dira eta atletismoko pista izango du batek. Lan hauek egiten has-tean, ordea, Trebijanon dagoen rugby zelaia erabiliko da edonolako neurketak jokatzeko. Hau aurreikusita harmailak eraikitzen hasi dira Trebijanon eta aldagela berriak ere laster hasi-ko dira egiten. Argiteriak ere hobekuntzak izango ditu.

Ainhua Irastorza

Avilako kartzelan dago preso Ainhua. Orain gutxi jipoitua izan da beste preso batzuk bezalaxe. Egoera hau salatzeke hainbat ekimen izan dira herrian eta Udalean mozioa aurkeztu da. Udalak bere kezka azaldu du eta gertakariaren inguruko informazioa zuzena jasotzeko konpromisoa hartu du, dagozkion gestioak egiteko eta Ainhoaren eskubideak bermatuak izan daitezen.



2004ko kultur astea, apirilaren 17tik 25era

Apirilak 17, larunbata:

Haur eta gazte mailako pilota txapelketaren finalak. Al-kainburu pilotalekuan 16:30etan hasita.

Bertso sariketako afaria Osinalde elkartearen eta ondoren saioa kanporaketetan sailkatutako sei bertsolariarekin. Afarirako txartelak aurrez salgai elkartearen eta tabernetan. Aferia 20:30etan hasiko da, eta saioa jarraian.

Apirilak 18, igandea:

Txotxongiloak, 'Hitzak patriketan' ikuskizuna. 17:00etan.

Apirilak 19, astelehena:

Udaberriko lore eta landareen zainketaz eta lore lehorrei buruz hitzaldia, kultur etxean 17:00etan.

Apirilak 20, asteartea:

Eneko Etxebarrietaren diapositiba emanaldia, '4 urte, 46.000 km' ikusentzunezkoa. Kultur etxean 20:00etan.

Apirilak 21, asteazkena:

Transeuropa taldearen diapositiba emanaldia, 'Ipar Lurmuturra - Tarifa' lana. Kultur etxean 20:00etan.

Apirilak 22, osteguna:

Sukaldaritzaz hitzaldi-ikastaroa Aloña Bosqueren eskutik. Herriko Ostatuan 17:00etan.

Apirilak 23, ostirala:

'Kutsidazu bidea Ixabel' antzerki emanaldia. Frontoian, 22:00etan. Sarrerak aurrez jarriko dira salgai udaletxean eta tabernetan.

Pilota txapelketa

Herriko eta inguruetako pilota eskoletako haur nahiz gazte-entzat antolatzen den txapelketa abian da hil honen 13az geroztik. Ormaiztegi, Zumarraga, Urretxu eta Gabiriako pilotariak kanporaketa faseko partidak dituzte larunbatero Al-kainburu pilotalekuan, hiru adin mailatan bereizita. Finalak apirilaren 17an jokatu dira.

Bertso sariketako aurrera

Aztiriko saioa da Osinalde bertso sariketaren baitan orain arte ospatu den bakarra. Aztiri-bat elkarteko betiko giro be-roan Miren Artetxe hendaiarra geratu zen puntutan aurreneko, eta Aritz Aranburu zaraiztarra ondoren. Bihar Ordizian Argi-berriko saiotik eta apirilaren 2an, ostirala, Idiazabalgo Axarrikotik irtengo dira finalean kantatuko duen seikotea osatzeko geratzen diren izenak.

Hauteskundearen emaitzak

Martxoaren 14ko hautesontziei zitak honako emaitzak utzi zituen: EA 120, EAJ 74, Aralar-Zutik 27, EB-IU 5, PSE-EE 4, PP 3, FE-JONS 1, zuri 1, baliogabeak 57. Boto eskubidea 344 kidek zuten eta partehartze portzentaia %81,98koa izan zen.

Goierriko bola txapelketa

Azken jardunaldia Gabiriako udal bolatokian jokatu da datorren apirilaren 3an, larunbata. Otsailean hasi zen txapelketa, eta Goierriko hainbat bolatokitan larunbatero tiraldiak egin ostean hemen erabakiko da. Iluntzean sari bana-keta eta afaria izango dira.

Aimar Maiz

Apirilak 24, larunbata:

Eskolako haurren antzerki emanaldia, parrokiako antzokian 17:00etan.

Apirilak 25, igandea:

Goruntz taldearen dantza saioa. Plazan meza ondoren.

Txindata musika eskolako ikasleen musika ikuskizuna. Antzokian 17:00etan.

KONTSULTORIO MEDIKU-KIRURGIKOA

Goierritarrentzako mediku zerbitzu espezializatuak

Ordua eskatzeko tfnoa: 943 08 55 60 Faxa: 943 08 55 61

Nafarroa Etorbidea, 25 - 2.

BEASAIN



Eguerdietan ere zabalik

Urte guztian sagardotegiko menua eta karta

© 943 88 77 26

ALTZAGA



Etxebizitza berriak

Gaintzako Alkateak otsailaren 27ko Goierritarran zioen moduan, herrian etxebizitzak

eraikitzen ari dira, ea jendea etortzen den eta herriari beste bizi bat ematen zaion.

Hauteskunde emaitzak

Joan zen martxoaren 14ko hauteskundetan honako emaitzak jaso ziren gure herrian:

Zentsoa: 106

Taldeak	Botoak
EAJ/PNV	42
EA	09
ARALAR-ZUTIK	07
EB-IU	01
BALIOGABEAK	16

3 eraikin berri dira egiten ari direnak eta eraikin bakoitzean 2 bizileku izango dira. Bizileku bakoitzak hiru oinplano izango ditu. Erdisotoan autoentzako garajea eta txokorako lokala. Beheko plantan sukaldea, komuna eta egongela. Lehen plantan 3 logela eta 2 bainugela.

Etxebizitzak paraje ezin hobean ari dira eraikitzen, al-

de batera Aralar eta bestera Aizkorri dituztela. Udalak ez du zer ikusirik etxebizitza hauen salmentarekin baina ederra izango litzateke bertara bizitzera etortzen direnak herrian eta herriarentzako bizimodua egitea.

Etxebizitza hauei buruzko informazioa eta zehaztasunak Tolosako Elgi inbiliarian emango dizute.



Zuhaitz eguna

Martxoaren 11n, Itsasondon, beste hainbat herrietan bezala, Zuhaitz Eguna ospatu genuen. Goizeko 11etarako genuen ordua Kantillapeko parkean. Bertan bildu ginen haur

eta gurasoak, Jose M^a alkatearen gidaritzapean, lanari ekin genion. Baserritar gutxi dago Itsasondon eta haurrentzat, eta helduentzat ere, aitzurra fundamentuz maneia-

Odol emateak apirilaren 5ean

Odol emale direnei eta etorkizunean izateko prest diren guztiei, apirilaren 5ean, astelehena, arratsaldeko 7etatik 9etara bitartean, Udaletxe azpian, Gipuzkoako Odol Emaleen Elkarteak odol emateak antolatu dituela jakinerazten nahi dizute.

Aldi berean, gogorararazi nahi dute, odol emale berriak behar direla. Dagoen odol premiari aurre egiteko betiko emaleekin ez delako nahikoa. Anima zaitetz, ikusiko duzue ez dela horrenbeste kostatzen eta aldiz ematen den laguntza izugarria da.

tzea ez da lan erraza beti, baina denbora gehiago erabili behar izan bagenu ere, lana amaitu genuen.

Mota ezberdineko zuhaitz landareak landatu genituen: magnoliak, haginak, haritzak, otsalizarrak, ezkiak eta gorostiak. Honetaz gain iazko landaketan ihartuta gelditu ziren itxurako landareak atera eta berriak sartu genituen. Bukatzeko, lanean parte hartu

genuen guztioi ezipel landare bana oparitu ziguten.

Aukera ona izan zen, haurrentzat bereziki, gure inguruko zuhaitzak ezagutzeko eta errespetatzen ikasteko. Bakoitzak berea aldatu zuen. Agian urte batzuetara esango dute "hau nik aldatutakoa duk" eta ondorengoei ere gure ingurumena zaintzen eta maitatzen erakutsiko diete.



Dantzari txiki eguna

XIV. Dantzari txiki eguna apirilaren 4an izango da, Iztueta dantza taldeak eta Zaldibiako udalak antolatuta. Bertan hondoko taldeek parte hartuko dute: Gipuzkoatik: Ordiziako Jakintza, Lazkao-

ko Oin-Arin, Beasaingo Aurtzaka, Legorretako dantza taldea, Gabiriako Goruntz, Oreretako taldea eta Zaldibiako Iztueta. Iparraldetik: Senpereko Zirikolatz. Nafarroatik: Berako Gure Txokoa.

Labur-labur

● **Euskal Herriko txirrindulari itzulua:** apirilaren 9an, ostiral goizean, Zaldibiatik bi aldiz pasatuko dira txirrindulariak.

● **Saturdiko festa** apirilaren 12an ospatuko da.

● **Gailurrerarantz mendi taldearen irteera:** martxoak 28, igandea, goizeko 8:30etan plazatik, Artetarko iturburura. Irteera hau pasa den martxoaren 21ean izatekoa zen baina aste betez atzeratu da.

● **Antzerki saioa:** 'Pakitarentzat bakarrik', martxoaren 26an, ostirala, 22:15ean antzokian.

● **Dantzari txiki egunaren bezperan,** apirilaren 3an, 22:00etan herriko frontoian Donostiako Eskola dantza taldearen ikuskizuna izango da.

Egitaraua

11:00etan: Dantza taldeak herriko plazan elkartuko dira. Ondoren dantzari guztiei hamaketakoa emango zaie.

12:00etan: Dantzarien desfilea hasiko da.

Oharra: 12:00etatik 13:00etara Zaldibiako kalea kotxeentzat itxita egongo da.

13:00etan: Jaialdia herriko plazan.

14:00etan: Bazkaria. Bazkalteko haurrak herriko etxetara joango dira.

Oharra: Haurrak etxera bazkaltzera eraman nahi badituzu, eman zure izena kultur etxean.

17:00etan: Erromeria Modestorekin.



Goierritarra

Goierri aldizkaria jasotzeko ez da derrigorrezkoa 12 euroak ordaintzea. Goierri kanpo jasotzeko bai.

etxean jasotzeko laguntzaile txartela

Izen-abizenak:

Helbidea:

Herria:

Tfnoa.: **Adina:** **NAN:**

Kontu zenbakia (20 digitu):

Bidali txartel hau helbide honetara: Goierritarra, 124 Posta Kutxa, Ordizia eta posta gastuak ordaintzeko urtean 12 euro kobratuko dizkizugu kontu korrontetik Ipar Euskal Herrian edo European jasotzeko 24 euro ordaindu behar dira eta Europaz kanpo jasotzeko 36 euro.



Herri-kirol taldea sortzen

Euskal jolas, joko eta kirolen topaguneak egindako proposamenari heldu eta Idiazabalen herri-kirol taldea sortzea erabaki du herritar talde batek. Sanblasetan, Orendaingoen aurka egindako saioaren ondorio zuzena da orain sortzen ari den ekimena. Apustuan parte hartu zutenak izango dira talde berriaren partaidetako batzuk. Kirolen topagunearen baldintzen arabera, taldea 6 gizonetako eta 6 emakumetako osatu behar dute. Dagoeneko, herritar batzuk animatu dira, baina deialdia oraindik ere irekita dago eta herritarrei (neskei bereziki) dei egin die bultzatzaileek ekimen horretan parte hartu dezaten. Interesa duenak, Asier Santanarekin edo Anartz Pradosekin hitz egin besterik ez du.

Udalak, Artzai Gaztaren ondoan dagoen lokala utzi dio talde berriari entrenamenduak egiteko. Bertan prestatuko dituzte topaguneak herrialdeko antolatutako duen norgehiagokak. Euskal jolas, joko eta kirolen topaguneak, izena eman duten taldeekin topaketak egingo ditu apirilaren 24-25 aste bukaeran.

Kirolak

Zelaako kiroldegian aritzen diren taldeek larunbatean (27) jokatu dituzten partidak:

Saskibaloia. Mutil benjaminak: San Benito - Aita Iparragirre (Lazkaon 12:00etan); Neska benjaminak: Aita Iparragirre - San Benito (Zelaan 12:00etan).

Herri Kirolak: Mutil alebi-

Ipar Amerikako sukaldariak

Apirilaren 20an, asteartea, bisitari bereziak izango ditugu herrian. Ipar Amerikako sukalde adituak eta kazetariak biltzen dituen elkarteko ordezkariak etorriko dira Idiazabala. 18 laguneko taldean, elkarteko presidentea, adituak eta sukaldean espezializatutako kazetariak egongo dira.

Euskal Herrira etorri aurretik, taldeak Espainiako estatura bisita egingo du. Idiazabalen, Ondramioko gaztandegia bisitatu dute, besteak beste.

Gazta Eguna

Maiatzaren 2an ospatuko da Gazta Egunaren 7. edizioa. Antolaketa lanak oso aurreratu daude. Aurten, plazako zubiko lanak direla eta, postuak plazan, frontoi zaharrean eta Txome-naneko parkean jarriko dituzte.

Aldaize

Aldaize herri aldiakariaren bigarren alea aste santua baino lehen iritsiko da Idiazabalgo etxeetara. Aldiariak lehenengo alean baino lau orri gehiago izango ditu eta tirada 1000 alera handitu dute. Etxegarateko bikoizketa bukatu eta urte betera herritarrek duten iritzia biltzen duen erreportajea, Luis Kataraini egindako elkarrizketa eta garai bateko aste santuari buruzko kronika bilduko ditu, besteak beste, bigarren aleak.

Hauteskundeak

EAJk irabazi zituen martxoaren 14an Espainiako Gorteak aukeratzeko egin ziren hauteskundeak. Plazako obrak direla eta, boto kuxak Artzain Gaztaren lokal berrian jarri zituzten. Hauek dira emaitzak:

EAJ	487
EA	411
Baliogabeak	233
Aralar-Zutik	86
PP	58
PSE-EE	57
EB-IU	29
Abstentzioa	%21,67

nak eta neska alebinak Lazkaon arituko dira 10:30ean hasita.

Areto Futbola. Mutil kadetak: Aita Iparragirre - Lasarte; Neska kadetak: Aita Iparragirre - Anoeta.

Mahai tenisa. Aita Iparragirre - Beasain (Antzizar kiroldegian 9:30ean)

Igeriketa. Aita Iparragirre - Majori (Ordizian 10:00etan)

Xabier Urteaga

izal
IMAZ eta CONTRERAS

PINTURA eta PAPERGINTZA

943 187 049 - 943 187 045
Ondramuño baserria IDIAZABAL

ZUGAZTIBI
AHOLKULARITZA

zugaztibi@telefonica.net
Tel.: 943 16 23 86 - 943 16 15 58
Faxa: 943 16 15 58
Domingo Unanue plaza, 2 behe ORDIZIA

9:30etik 19:00etara
EGUARDIZ IREKITA


txekin

- Laborala
- Fiskala
- Kontablea
- Juridikoa
- Aseguruak
- Inmueble ajentzia

Dioni Galparsoro berrespenaren bila

Denboraldi hasiera txukuna burutu ondoren, profesional-tan bigarren denboraldiari baikortasun handiz ekingo dio Dioni Galparsorok. Andaluziako itzulian lehenik eta aurreko astean Paris-Nizan parte hartu zuen. ataungo semeak oso maila ona eman du Frantzia aldean. Aldapa gogorrenetan maila handiko txirrindularien alboan ibili da eta bere lana behar bezela burutu du.

Dionik joan den urtean egin zuen debuta Euskaltel-Euskadi taldearekin. Ilusioz gainezka ekin zion denboraldi berriari. Momentu hone-tan, oso gustora dago ataun-darra, gauzak ondo ateratzen ari bait zaizkio. Joan den ur-tetik hona aldaketa garrantzi-



tsua antzeman duela azpimarratzen du Galparsorok. Eta ez berak bakarrik, bere zuzendari den Julian Gorospe ere oso gustora dago ataundarra burutzen ari den lanarekin.

Informatika ikastaroak

MAE Informatika Akademiak 14 urte daramatza informatika ikastaroak antolatzen horretarako zentzurik ez duten herrietan. Hori horrela gure herrian antolatu den ikastaroak 4 hilabeteko iraupena izango du. Bertan, Windows Milenium sistema operatiboa, Office (Word, Excel, Access, Power Point) eta internet erakutsiko dira. Klaseak astean behin izango dira, 18:00etatik 18:30era edota 19:30etik 21:00etara.

Aste Santua ondoren ekingo zaio ikastaroari eta urria arte iraungo du. Ikastaro honen prezioa 300 eurotakoa izango da. Udaletxeko ganbara erabiliko da horretarako. Izena emateko epea zabalik dago eta interesatuok 943 37 69 79 edota 627930498 telefono zenbakietara deitu behar duzue.

Doltza Barandiaran

Hurrengo erronka nagusia "Tirreno Adriatiko"-ko itzulia izango da. Hau korritu ostean, Errioxa, Asturias eta Gaztela eta Leongo itzulian parte hartuko du Dioni Galparsorok. Gauzak nola dihoazkion ikusita, txirrindulari gaztearen helburu eta nahietako bat, Espainiako Itzulian parte hartzea da.

Asteburuko partidak

Aurreko hilean eman zioten amaiera Ataun Bitor Jatetxeko nesken aurtengo denboraldiari. Asteburu honetan, mutilen neurketa izango da eta Ataun Aviak etxean jokatu-ko du Bar Buenetxea taldearen aurka. Joan den asteburuan liderra mendean hartu ostean, sailkapenean gora egiteko asmoarekin kantxaruko dira gure mutilak.

Sukaldaritza ikastaroarekin pozik



Sukaldari ikastaroari ere iritsi zaio bere amaiera, bihar martxoak 27, kurtsoaren azken eguna izango dugu. Badirudi jendea oso gustora geratu dela antolatutakoarekin, asko

ikasi omen dute eta sukaldaria ere oso ondo aritu omen da. Beraz, eskerrik asko Iker Markinezi (Kuko jatetxeko sukaldaria) eta eskerrik asko parte hartu duzuen guztiori.

KZ guneko apirileko ordutegia

20 orduko ikastaroak (interneten oinarritzko ikastaroak):

- Apirilaren 5etik 22ra 9:00-11:00
- Apirilaren 5etik 22ra 11:00-13:00

10 orduko ikastaroak (50 urtetik gorakoentzat):

- Apirilaren 23tik 29ra 9:00-11:00

Mintegiak:

- Interneteko praktika interesgarriak.
- Iraupena: 1etik 4 ordu bitartean.

Hazi bedekintzea

Apirilaren 18an, 12:00etan emango den mezaren ondoren bedekintuko dira haziak eta ura Santa Engrazi ermittan. Ondoren hamaiketako eskainiko dute santaengrazitarrek.

Atari eta balkoien lehiaketa

Martxoaren 21eko udaberriko lore eta landareen azokarekin batera atari eta balkoileihoak dotoretu asmoz antolatu ohi den lehiaketaren berri eman zen. Helburua, herriaren itxura hobetzen joatea da, urtez urte. Atarien atalean bi sari banatuko dira eta balkoileihoenean beste bi. Herriko etxe nahiz baserriak hartuko dira kontutan. Erabakiak San Joanetan jakinaraziko dira.

Ikastaroak doan

Udalak Cebanc-Cdea ikastetxearekin egindako hitzarmenari esker, 25 urtetik gorakotzat zenbait ikastaro antolatuko dira doan. Momentuz ondorengo hiru eskaini dira.

● **Ardo dastaketa.** 20 ordu. Apirilaren 19tik 30era, 19:00etatik 21:00etara. Izen ematea apirilaren 7rako.

● **Ordenagailuaren erabilerrari hasera.** 40 ordu. Maiatzaren 3tik ekainaren 4ra, 15:30etik 17:30era. Izen ematea apirilaren 23rako.

● **Argazkia eta argazkikutua ordenagailu bitartez.** 40 ordu. Maiatzaren 3tik ekainaren 4a, 18:00etatik 20:00etara. Izen ematea apirilaren 23rako.

Izen ematea eta informazio gehiago, Udaletxean.

Baserritarren txangoa

Aurtengoan, martxoaren 30ean izango da udalak baserritarrentzat antolatu ohi duen

Pelota eskola

Martxoaren 4an haurren gurasoekin burutu zen bileran, ordutegia eta asistentzia errespetatu beharra azpimarratzeaz gain, guraso bakoitzak 30 euroko kuota ordaintzea erabaki zen.

Inge Olano, pelota eskola-ko arduraduna, Egoitz Berasategi eta Xabier Imazen laguntzaz, 30 bat mutikorekin aritzen da. Bi taldetan banaturik dabilta astean bi egunetan ekainera arte. 6tik 9 ur-

ibilaldia. Bizkaia aldera joango dira. Goizez, Derioko nekazal eskolako baratze ekologikoa bixitatuko dute, bertan laborantza hidropanikoa zertan datzan ikusiko dute. Ondoren, Derioko 'Aberekin' enpresako zezen hazi bankuaren funtzionamendua ezagutuko dute. Bazkalondoren, gaztaia eta ogia ekoizten duten Durangoko baserri batetara joango dira. Irteera, goizeko 8etan.

Futbola

Asteburuko emaitzak: Errejonialak: Segura 0-1 Orioko. Gazteak 0-1 Segura (atzeratutakoa). **Jubenilak:** Oiaztzun 1-1 Segura. Segura 3-0 Gure Txokoa (atzeratutakoa). **Kadeteak:** Billabona 5-0 Aizkorri. Aizkorri 1-6 Añorga (atzeratutakoa).

Asteburuan etxean: Infantilak: Aizkorri-Añorga (zapatuan, 11:00etan). **Jubenilak:** Segura-Beti Gazte (zapatuan, 15:30ean). **Alebinak:** Aizkorri-Eibar (jaien, 11:00etan).

Labur-labur

● **Bola.** Martxoaren 13an Legazpiko Mauleonen jokatu zen Goierriko txapelketako saioa, Antonio Agirrek (49 birla) irabazi zuen. 2. Xepeño Agirre (48 birla) geratu



Bost herri artekoaren finala iaz.

te bitartekoak, jolasaren bitartez pelotarekin trebatzen ari dira. 10etik 12 artekoak, berri, hobekuntzan.

Aurrerantzean gainera, herri mailako txapelketa antolatzeke asmoa dago. Ondo-

ren 5 herrien artekoa jokatu-ko da.

Iaz bezala, Segurak ez du herri arteko txapelketan parte hartuko pelotaririk ez dagoelako.

Aire libreko margo txapelketa

Iparra-Hegoa kultur astearen barne, aire libreko VI. margolari nobelen txapelketa burutuko da martxoaren 27an, 9:00etatik 13:00etara. Gaia: Segurako edozein motibo. Ikuskizunaz herriko hainbat txokotan gozatu ahal izango da. Sari banaketa arratsalde, kultur etxean. Margo lanak, herriko tabernetan jarriko dira ikusgai eta salgai.



zen.

● **IV. Lore eta landare azokako zozketa** ibiltariko zenbaki saritua 1219 izan zen.

● **Eginkizun anitzeko peoia.** Juan Migel Larrea izango da udalak 6 hilabeterako kontratatuko duen langilea.

● **Kotxe berria.** C-15-ari baja emanda, atzekalde irekia duen Nissan 'todoterreno' bat erosi du udalak. 20.200 euro kostatzen da.

● **Ardixarreneko ikuskaria.** Bixitarien Seguraren historia 6 minututan azalduko dien ikuskaria aurreko astetik dago martxan. Apirilean prentsurreko egingo da.

● **Parkeko mobiliarioa.** Parke osoa txukuntzeaz gain, umeen jolasgarri berria jarri eta antolaketa desberdina eginge asmoa du udalak Aste

Santurako.

● **Jubilatuaren elkarte.** Aste honetan egin dira urteko kuoten kobraketak. Apirilaren 18an, 13:00etan urteko batzar orokorra izango dute.

● **Ingelesko udako barne-tegia.** Diputazioak antolatutako 15 udalekutan parte hartzeko izen emate epea zabalik dago apirilaren 2 arte, 7tik 13 urte bitartekoentzat. Segurako aterpetxean, ingelesa ikasteko 45 plaza daude.

● **Iparra-Hegoa eta Aste Santuko informazioa** 14, 15 eta 16 orrialdeetan.

● **Mendi irteera:** Apirilaren 4an, Harrihaundi-Kanala-Harrihaundi. Irteera 8,30etan, plaza-rik.

Joseba Telleria



Mariskoa
Txangurro
betea

Marisko
salpikioia

Marisko krema

Fritoak

Porru eta
ganbak

Urdaiazpikoz
betetako
esparragoak

Ontto pudina

Txangurroa

Onttoen

Voulabena

Arrain zopa

.....



Lukusin enparantza, 6
ORDIZIA

OSPAKIZUN -en bat duzula?

Otordua prestatzea gure esku!

DEITU eta eskatu nahi duzuna

943 08 51 61

Ohizko platerak eta zuk eskatutako beste edozer

Argazkia: Josune Bereziartu
"Bain de Sang", Suitza.
9A Zailtasuneko ibilbidea.
Argazkia: Rikar Otegi

**Mugak
gaindituz**

GOIERRIKO
ARGAZKILARITZA
PROFESIONALA



Gema Arrugaeta - Orotz Etxabe
Elkano 8. 20240 Ordizia
Tel/Fax 943-16 22 64
fotoibiltaria@euskalnet.net

Foto IBILTARIA

Josune Bereziartu eta Rikardo Otegiaren patroinatzailea



Disenua: Iñigo Doria

*Etxearen
epelean*



SUTAN

Mugitegi industrialdea, B bidea
20700 URRETXU
Tel.: 665 737 302 / 30



- X Sukalde
klasikoa
- X Burdin
galdatuzko
tximiniak
- X Parrilak
- X Egurrezko
simulazioa
poliuretanoan
- X Poliuretanozko
adreriluak,
arbelak...
- X Harlandua
- X Leihoak
- X Argizuloak



Jose Agustin Jauregi

Tel. eta Faxe: 943 886 558
Poltsikoko telefonoa: 616 698 288



- Pankartentzat errotulazio bereziak
- Fatxadako toldoak
- Motorizatuak eta automatikoak
- Estaldurak eta itxidurak
- Toldoak alokairuan
- Kamioientzako toldoak: Tir toldoak
- Toldo korrederoen prestaketa
- Errotulazio eta inpresioa lonetan eta zurrunetan

ERAKUSKETA:
Lorategiko eta
terrazako altzariak,
kolore ezberdinetako
aluminio lakatuan

Zubi-Erreka Industrialdea, 42 **LAZKAO**
toldosagustin.com e-posta: auxkin@toldosagustin.euskalnet.net

Bola txapelketa

Martxoaren 21ean jokatu zen Gurruntzain bolatokian Gipuzkoa mailako bola txapelketako saioetako bat. 56 bolarik parte hartu zuten eta tartean gazte mailako batek eta emakumezko batek. Bolatokia ondo zegoen eta zazpi kide izan ziren 48 bola zituztenak. Horien artean irabazlea zein zen ikusteko desentzate egin behar izan zen eta sailkapena honela geratu zen: lehenengoa Jose Angel Belaunzarain, bigarren Andoni Berasategi eta hirugarren eta laugarren Jose Mari Etxebeste eta Martin Retegi hurrenez hurren.

Aitz-buru elkarteak irteera

Apirilaren 3an egingo a Aitz-buru elkarteak urtero antolatutako ohi duen bidaia. Aurten txakolindegira egingo da bisita eta Zarautz inguruan eguna pasatzeko aukera izango da, txakolina dastatuz.

Kanposantu azpiko etxebizitzak
Dagoeneko martxan dira Kanposantuaren azpi aldean egin behar diren etxebizitzak eraiki eta urbanizazioa egiteko lanak.

Traste zahar bilketa

Datozen hiru hilabeteetan traste zaharren bilketa egiteko egunak honako hauek dira: apirilaren 14a, maiatzaren 12a eta ekainaren 9a. Askotan aipatu arren, gogoratu traste zahar hauek bilketa gunera atera aurretik, zein puntutan dauden esateko 943161590 telefono zenbakira deitu behar dira.



Ostatuko mus txapelketa irabazleak

Otsailaren 28an Ostaturun egindako mus txapelketako irabazleak ageri dira argazkian. Irabazleak Joxe Mari Murgiondo eta Luis Aranburu izan ziren.

Aste Santuko ospakizunak

Aste Santua gainean dugu eta honekin batera elizkizunak ere gehitu egiten dira. Gure herrian elizkizunak egun bakoitzean honako orduan izango dira.

- Ostegun Santu egunean, arratsaldeko 8etan.
- Ostiral Santu egunean, arratsaldeko 3,30etan.
- Larunbatean, arratsaldeko 8etan.

Horrekin batera gogoratu, Aste Santua prestatzeko hitzal-diak ere izango direla apirilaren 1ean, 2an eta 3an; hauek arratsaldeko 8etan apaiz etxean.

Iñaki Ugalde

Eusko Jaurlaritzak 25 urte beteak dituztenentzako ehuneko ehunean diruz lagundutako sukaldaritza, informatika eta nekazaritza turismo ikastaroak antolatu ditu Cebanc-Cdearekin. Nekazaritza esparruan etengabeko irakaskuntza bultzatu nahi da ekimen honekin.

Sukaldaritza ikastaroa

Hiru zati izango ditu sukaldaritza ikastaroak: 40 orduko Eskualdeko sukaldaritza eta sormenezko sukaldaritzari buruzko ikastaroa; gozogin-

tzari buruzko 20 ordukoa (ekainaren 7tik 30era) eta ardo dastatzea 20 ordukoa (uztailaren 5etik 28ra). Astelehenetan eta asteazkenetan, izango dira ikastaroak, arratsaldeko 6,30etatik 9etara.

Informatika ikastaroa

Argazkia eta argazki-ukitua ordenagailu bitartez landuko da, 40 orduko ikastaroan. Apirilaren 10etik ekainaren

10era bitartean izango da, astearte eta ostegunetan, 18:30etik 21:00etara.

Landa turismo ikastaroa

Nekazaritza turismo etxe bat dutenei zuzendua dago soil-soilik. Ikastaro honetan ere hiru arlo landuko dira: apirilaren 19tik maiatzaren 6ra, Nola sortu nekazaritzako turismo-egoitza (30 ordu); maiatzaren 10etik 20ra, Zerbitzu kalita-

tea eta bezeroari arreta nekazaritza-etxean (20 ordu); eta maiatzaren 24tik ekainaren 23ra, Gure nekazaritza-toki xarmangarri bilakatzea (20 ordu). Astelehenetan eta ostegunetan izango da ikastaroa, 16:00etatik 19:00etara.

Interesik izanez gero, udal-etxean dago izena emateko eskaera orria betetzeko aukera.

Udaberri Gaztea

Martxoaren 26tik apirilaren 4ra

Udaleko Gaztedia eta Kirol sailak, Udaberri Gaztea antolatuko du aurten ere. Herriko gazteek ekintza ezberdinetan parte hartzera bideratutako ekintzak antolatzea izan da antolakuntzaren aurtengo asmoa. Horrekin batera, orain arte, Espainiar Estatuan, musika munduan puntan zebilen musikariren bat ekarri izan bada ere, aurten, Beasaingo eta Goierriko musikariak eta gazte taldeak izango dira protagonista. Jarraian duzue egitaraua:

Martxoak 26, ostirala:

22:15ean: Pokakonia taldearen 'Humor Sapiens' antzez-lana, Usurbe Antzokian.

Martxoak 27, larunbata:

18:00etan: Skate, Rolling eta Milkshake, Bideluze plazan.

21:00etan: Musika saioa: Fitter Hapier & Seppoti, Bideluze plazan.

21:00etan: Kale antzerkia, Mr. Frack & Company talde-

arekin, Bideluze plazan.

23:00etan: Multimediatika, Bideluze plazan. Ekitaldiak: DJ, Video Jokey eta Pi, Laboratorio de sensaciones.

Apirilak 3, larunbata:

16:00etan: Motor pobra erregulatua, Bideluze plazan.

18:30ean: Motor jokoak, Bideluze plazan.

19:30ean: Motor showa (Raul Lerena), Bideluze plazan.

20:00etan: Motor irteera bateratua Goierri zehar.

21:00etan: Kontzertua: Sin Red, Dogma de Fe eta Spurium.

Apirilak 4, igandea:

12:00etan: Ibilgailu bitxie bira, Bideluze plazan.

17:00etan: 'Gorputza eraldaketa gai'. Tatuaiak eta piercingak, Fx-ak Efektu bereziak eta Artisten Bideo-proiektzioak, Usurbeko erakusketa aretoan.

Nekane Altuna

Erretiratuen hitzaldiak

Erretiratuen etxean arratsaldeko 6etan izango diren hitzaldiak dituzue jarraian. **Martxoak 29:** Ariketa fisiko orekatuaren onurak. **Apirilak 19:** Nola ezagutu zahartzaroko gaixotasunak eta horiei nola aurre egin. **Apirilak 19:** Komunikazioa eta adiskidetasuna bizimodu osasuntsurako giltzarriak. **Apirilak 26:** Autestimazioaren garrantzia.

Irteera Santa Susanara

Ekainaren 5etik 19ra 15 eguneko irteera egingo da. Izen emateko epea dagoeneko irekita dago, arratsaldeko 4,30etatik aurrera.

Jubilatuaren mendi ibilaldiak

Apirilaren 24an, maiatzaren 8an eta 15ean eta ekainaren 5ean eta 26an, mendi irteerak izango dira jubilatuentzat, Udaleko Gizarte Ongizate sailak, Aizkorri Mendizale Elkartearekin eta Gurutze Gorriaren laguntzarekin antolatuta. Bertan parte hartzeko izena ostegunetan eman behar da Erretiratuen etxean, arratsaldeko 4,30etatik 6etara.



Zuhaitz Eguna

Martxoaren 16an Zuhaitz Eguna ospatuz, Murumendi ikastetxeko ikasleek 66 pago, zumar eta lizar landara aldatu zituzten Sasieta zabortegean. Era berean, Sasieta zabortegea gertutik ezagutzeko aukera izan zuten.

Euskararen erabilpen-neurketako emaitzen aurkezpena

Datorren astelehenean, martxoak 29, arratsaldeko 7etan, udal-letxeko batzar-aretoan, Sei soziolinguistika-elkarteak, 2003ko azaroan Beasaingo kaleetan zehar egindako euskararen erabilpen-neurketako emaitzak aurkeztuko ditu.

Antzizar kiroldegia igandeetan ere egun osoz zabalik

Martxotik aurrera Antzizar kiroldegia zerbizua zabaldu egin da. Honela, igande arratsaldeetan ere irekita egongo da kiroldegia. Aldi berean, kiroldegiko tabernan egindako berrikuntzaren berri ere eman digute Antzizar kiroldegitik. Pantaila erraldoia jarri dute futbol partiduak eta kirol ikuskizun ezberdinak ikusteko. Aurrerago, tabernan bertan, txikienentzako parkea ere jartzekotan dira.

Asmubeko ekintzak

Herriko emakume taldeak apirilerako eta maiatzerako antolatutako ekintzak dituzue segidan. **Aurpegiaren zainketa, manikura eta makilajea:** apirilaren 20an eta 27an, eta maiatzaren 4an eta 11n, 16:00etatik 17:30era. Joli Hernandezen eskutik. **Festetako sukaldaritza:** Apirilaren 22an eta 29an eta maiatzaren 6an, 13an eta 20an, 18:00etatik 20:00etara, Iban Mate sukaldari beasaindarraren eskutik.

Aizkorriko mendi ibilaldia maiatzaren 9an

Aizkorri Mendi Elkartek antolatutako II. Mendi ibilaldia maiatzaren 9an izango da.

Barduliarrak elkartearen oharra

Barduliarrak Elkarteko Zuzendaritzak hiru gaiei buruzko argibideak hel arazi dizkigu aipatu elkarteko bazkideak jakinaren gainean izan zaitezten.

Elkarteko azken batzar nagusian kuota berezi bat ordaintzea onartu zen elkarteko sukaldan egiten ari diren berrikuntza lanen zati bat ordaintzeko. Zuzendaritzak aipatu kuota bi zatitan ordaintzea erabaki du.

Bestetik elkarteko bazkideek urteroko bazkaria ospatuko dute datorren martxoaren 28an, 14:30etatik aurrera, Lierniko Mujika jatetxean.

Joan nahi duzutenek izena elkartean bertan eman dezakete horretarako jarrita dagoen zerrenda orrian. Izenemate epea aipatu eguna baino egun batzuk lehenago itxiko da.

Azkenik Zuzendaritzatik jakin arazi nahi zaizue sukaldako berrikuntza lanak oraindik ez direla amaitu, uste baino lan gehiago sortu direlako. Aitzitik berrikuntza lanen amaiera ohar baten bitartez jakin araziko zaizue.

56ko kinto lagunen bilkura

Urtero egin ohi bezala 56ko kinto lagunek, hau da 69 urte

Angolarako dirubilketa berezia

Aurtengo Aste Santuaren barnean herriko parrokian Kristau Heziketan parte hartzen duten gaztetxo eta begiraleek ekimen interesgarri eta aipagarri bat abian jarriko dute. Hain zuzen Aste Santuko elizkizunetan burutuko diren dirulaguntza berezietan lortuko den dirutza, Angolarako ekografiak egiteko aparailu bat erosteko bideratuko da.

Aitziber Murua

betetzen dituztenek, beraien urteko bilkura eguna prestatu dute. Apirilaren 4ean, Erramu igandean, Azpeitian elkartuko dira. Lehenik eguerdiko 13:00etan Loiolako Baselizan Meza Nagusia ospatuko dute, bertan Azpillaga eta Intxausti bertsolariekin. Ondoren 14:30etatik aurrera Loiolako Kiruri jatetxean bazkaria izango dute. Joan nahi duzutenek nahikoa duzue Tolosako 943-67.25.05 telefonora deituz zuen izena ematea.

Ur kontsortzioaren oharra

Gipuzkoako ur kontsortzioak bere Ormaiztegiko bezeroei gogorarazten die 2003 urteko laugarren hiruhilabeteko ur erreziboak ordaintzeko borondatezko epea datorren martxoaren 30ean bukatzen dela. Gai honi buruzko edozein zalantza argitu nahi izanez gero, 902 30 22 22 bezeroaren telefono zenbakira deitu dezakezue.

Txirrindulari Itzuliaren amaiera

Apirilaren 9an, goi mailako txirrindularitzaz gozatzeko aukera izango da Lazkaon. Izan ere, Euskal Herriko Txirrindulari Itzulia herrian bukatuko baita. Kirol Elkartetik ahailegin handia egin da Itzuliaren bukaera herrira ekartzeko. Informazio zehatza 36 eta 37. orrietan duzue, antolatzaileren taldean dagoen Igor Sarriegik kontatuta.

Egun horretan herrian trafikoa moztuta egongo da eta antolakuntzakoek emandako oharrei kaso egitea eskatzen da.

Futbola

Erregionalak 0-0 bukatu zuten pasa den astean Andoaingo Euskalduna taldearen aurka. Lau partiduren faltan dira eta igoeratik geroz eta gertuago dute. Aste honetan Hondarribiren aurka dute eta lehia bizia izango da, aurkariak ere igoera postua lortzea baitute helburu.

Jubenil neskak

Kopako bigarren partiduen ondoren hirugarren bat jokatuko dute larunbatean J.M.Barandiaran kiroldegian.

Odol ateratzeak

Martxoaren 17an berriro izan zuten aukera odol emaleek odola emateko. Denera 46 ateratze izan ziren eta hauetatik 4 berriak. Hurrengo maiatzaren 20an izango da. Berriro ere eskerrak eman elkarte honen eskutik eta hurrengo baterako deialdia luzatu jendea animatuz.

Zunzunegi oinetakoak

Hilaren 11n izan zuten lehen aurkezpen eguna. Irikiera berri hila 12an izan zen eta honekin beste komertzio dena bati ematen zaio ongi etorria. Lazkaoko bi neskek dute honen ardura; Marta Roperio eta Sandra Plasenciak. Urte guztirako egokituak diren oinetakoak dituzte salgai, Hiri-goien 8A kalean.

Pasa zen astean Ordiziako taldearen aurka neurtu ziren eta oraingo honetan idiaza-

baldarrak izango dituzte aurrez aurre.

Aitor Tello

Erlezain eguna apirilaren 4an

Bazkarirako izena emateko azken eguna martxoak 31

Aurten ere Erlezain Eguna burutuko da Zegaman eta horretarako aurreikusitako eguna apirilaren 4a da. Bertan Gipuzkoako VI. Ezti lehiaketa ere egingo da eta iaz bezala inguruko pastelgile ezagunenak, Gorrotxategi, Adarra, Unanue, Hawaii, Zegama Okindegia e.a. ek egiten dituzten pastelen erakusketa bat jarriko dute goizean zehar ikusteko eta ekitaldiaren bukaeran, gozo hauek bertaratu artean dastatuko dira. Erlezain elkarteak ere, ezti eta jogurta banatuko ditu guztientzat eta txokolate beroa ere izango da gozogleen eskutik. Beraz goiz gozoa dastatzeko aukera izango dugu Zegama aldean.

Aurten, Erlezain Elkarte-

ak, Axintxio Karrera amezketarra omenduko du eta erlumea nola biltzen den antzerkia ere ikusteko aukera izango dugu. Betalde, Gipuzkoan errotuta dauden sukaldaritzako hainbat akademitako ikasleek gozogintzako lehiaketan parte hartuko dute. Gozo hauetan beharrezko da osagai bezala ezti erabiltzea.

Bestalde, esan erlezain Egunaren inguruan hainbat hitzaldi antolatzen dituela Udalak eta Erlezain Elkartek, hona hemen hitzaldien berri:

Martxoak 30: Herriko Eskolan, erlezaintzari buruzko hitzaldia, eskolako haurrei zuzendua, arratsaldeko 14:30ean.

Kasinoko bertso jaialdia apirilaren 3an

Udal Pilotalekuan. Kasinok antolatutako bertso jaialdia izango da gaueko 10,30etan. Bertsolariak: Andoni Egaña, Sebastian Lizaso, Maialen Lujanbio, Iker Zubeldia, Ekaitz Goikoe-txea, eta Jokin Sorozabal. Gai jartzailea: Laxaro Azkune.

Urrezko Aizkora

Apirilaren 4an, Urrezko Aizkora bi proba jokatu dira., arratsaldeko 6,30etan. Gazteen txapelketan, J.M. Esnaola herri-tarra J Mindegiaren aurka lehiatuko da. Helduenean berriz, Joxe Etxebeste, martxoaren 27an Ugarteburu eta Elorriagaren arteko lehiako irabazlearen aurka arituko da.

Martxoak 30, 19:30etan: Antton Adarraga eta Juan Jose Urigain gozogile ezagunek hitzaldi bat emango dute Olarango Gizarte Zentroan, gozogintzak Euskal herrian izan duen bilakaerari buruz.

Apirilak 1: Olarango Gizarte Zentroan, Eguraldia eta erle-

ak elkar gozatzen hitzaldia, Pello Zabalen eskutik, 19:00etan.

Apirilak 3: Fraisoren, Bertako erle beltzaren inguruan hitzaldia 11:00etan, erlezainei zuzendua.

Edurne Albizu

Ostatua martxan

Martxoaren 18 ezker, herrigunean, berriro ere otorduak egiteko aukera dugu. Enrike eta Iñigo San Juan zarautzarrek hartu baitute Ostatuaren ustiakuntza. Egun edaritegia eta jabetxea dituzte irekita eta epe labur batera 10 logela ere izango dituzte apopilo-etxe edota bi izarreko pentsio modura. Gela guztiak bere bainu eta guzti daude eta ezinduentzat bi gela ere badaude moldatzeko beharrezko dituzte azpiegiturekin, igogailu, ezinduentzako komunak e.a. Eguneako menua astelehenetik ostiralera ematen dute eta asteburuetarako karta zabala dutela, menu bereziak barne.



Kutxa lekuz aldatuta

Aseginolaza kalean Kutxak duen bulegoa eraberritzen ari direla eta, Kutxak bere bulegoa lekuz aldatu du. Lehengo lokalaren ondo ondoan, lehen Mayi janari denda eta ondoren ileapaindegia egondako tokian, ipini dute probisionalki bi hilabeterako.

Hauteskundeetako emaitzak

Estatuko Legebiltzarra eta Senadurako izandako azken hauteskundeetako emaitza: Hauteskundeetako partehartzea Zegaman, % 79koa izan zen eta abstentzioa % 21ekoa. Eusko Alkartasuna izan zen indarrik bozkatuena 364 botuekin, 2000 urteko hauteskundeetako emaitzak hobetuz. Bigarren indarra, EAJ izan zen 214 botuekin eta honek ere 2000 urteko hauteskundeetatik

emaitzak hobetu zituen. Boto nuloak (Batasunari egotzi daitezkeenak) 190 izan ziren, Aralarrek 40 lortu zituen, PPK 16 botu, IU k 13 eta PSE-EE k 11.

Xabier Azurmendi Beka

2004ko martxoaren 8ko Udal Batzarrek, Xabier Azurmendi izeneko Beka abiaraztea erabaki zuen. Zegamarako interesgarri diren eta izango diren ikerketa gaiak bultzatu eta argitaratzea da helburua. Horiek horrela, 'Zegamako historia' landuko duen beka jarri da aurtengoan martxan, beraz, gai hau lantzeko interesa duenak oinarriak bulegoan jaso ditzake bulego orduetan. Eskaintzak aurkezteko epea ekainaren 30a izango da.

Odolemaileentzat oharra

Martxoaren 27an, odola emateko eguna izango dute Zegamako odolemaileek. Oraingoan, Olarango Gizarte Zentroan emango da, 17:00etatik 19:00etara. Esan, odol emaileen elkartetik gazte eta ez hain gazte ere, odola ematera gonbidatzen dituztela, batez ere, emaile berriak behar beharrezkoak direlako eguneko odol kopuruari eusteko.

Erretzeari uzteko ikastaroa

Udaleko Gizarte Zerbitzuak, apirilaren 20an erretzeari uzteko 6 orduko ikastaroa antolatzeko asmoa du. Asteazken ordu bete emango da. Izena emateko epea apirilaren 13an bukatuko da eta Udaletxean egin behar da izenematea. Ikastaroan parte hartu ahal izateko, argazki bat eta 60 euroko depositu bat jarri behar da, 60 euro horiek jardura guztietan parte hartu ezkerreko bukaeran itzuli egingo dira.

Nekazaritza esparruko doako ikastaroak

Cebank-Cdea-aren eskutik eta Eusko Jaurlaritzak subentzionatuta, nekazaritza esparruko hainbat ikastaro eskaintzen dira. Etengabeko ikas-kuntza planaren barruan, herri txikiak nekazaritza esparruko jendea, interesa eduki dezaketen arloetako gaiak eskaintzea da ikastaro hauen helburua. Erraztasun denak emate aldera, dohaineko ikastaroak izango dira Eusko Jaurlaritzak subentzionatuta eta herrian bertan edo inguruko beste herriren batean emango dira.

Honakoak dira eskaintzen diren ikastaroak: "Sormenezko sukaldaritza" (20 ordu), maiatzaren 10etik ekainaren 2ra, astelehen eta asteazkenetan, 18:30etatik 21:00etara; "Gozogintza" (20 ordu), ekainaren 7tik 30era, astelehen eta asteazkenetan, 18:30etatik 21:00etara; "Ardo dastaketa" (20 ordu), uztailaren 5etik 28ra, astelehen eta asteazkenetan, 18:30etatik 21:00etara; "Argazkia eta argazki-ukitua ordenagailu bidez" (40 ordu), apirilaren 20tik ekainaren 10era, 18:30etatik 21:00etara, astearte eta ostegunetan.



Ikastaroetako bat nekazalturismo etxeei zuzenduta dago.

Ikastaroetan parte hartu ahal izateko baldintza bakarra bete behar da: 25 urtetik gorakoa izatea. Horrez gain, herrian bertan eman daitezen klaseak, 10-15 lagun inguru egon beharko lirateke prest. Gutxiago balira, inguruko herriko jendearekin osatuko litzateke taldea eta ikastaroa lokala eskaintzen duten herriren batean egingo litzateke, betiere ikasleentzat joateko inongo eragozpenik ez balego. Interesatuak izena udal-txean eman beharko dute ahalik eta lasterren eta ahal bada apirilerako.

Ion Muñoa

Udaberriko lehen erromeria

'Zerain dantza zain' ekimeneko hirugarren erromeria ospatuko da datorren martxoaren 28an. Udaberriko lehen egunekin batera eta kukuaren kantuen babespean, jendearen dantzarako gogoia ase ahalko da datorren igandean. Azkeneko erromeriako elurak eguzkiari paso ematea espero da eta odolak bor-bor egiten duen garai honetan arratsalde ona bat igarotzea.

Hitzordua martxoaren 28an, igandea, arratsaldeko 6etatik 8etara izango da Zeraingo plazan. Patxi Perez dantza irakasle eta sustatzailearen gidaritzapean eta Euskal Herriko Tikitilari Elkarteko musikarien laguntzaz, goierritar denok dantzarako eta ondo pasatzeko aukera izango dugu Zerainen.

Arantzazura ibilaldia

Donostiako elizbarrutiak antolatuta bakearen aldeko Arantzazurako ibilaldia egingo da datorren apirilaren 3an, larunbata. "Fedek bizi gaitu" lelopean egingo da Oñatitik Arantzazurako ibilbidea. Bertara joan nahi dutenentzat autobusa antolatu da. 9, 50 euro kostako da eta goizeko 7:30etan irtengo da Zegamatik. Interesatuak martxoaren 31ko eman beharko dute izena parrokan.

Iker Aizpeolea eta Iraitz Iparragirre Beasaingo Arranoko mus txapeldun

Martxoaren 13an, Beasaingo Arrano tabernan jokatu zen mus txapelketa Iker Aizpeolea eta Iraitz Iparragirre herri-tarrek irabazi zuten. Denera 100 bikote baino gehiagok parte hartu zuten txapelketa honetan, zeraindar bikote gaztea gailendu zen. Zortea ere lagun izan bazuten ere, garai-pen bikaina eskuratu zuten bi muslari gazte hauek. Gogoratu behar da Iker Aizpeoleak duela gutxi Zeraingo Liz-tormendi elkarteko mus txapelketa ere irabazi zuela.

Hauteskundetako emaitzak

Joan den martxoaren 14an, espainiar Gorteetarako eta Se-naturako hauteskundeak egin ziren Zerainen ere. Partehar-tzea nahiko handia izan zen, %83k botatu baitzuen eta ho-nakoak izan ziren emaitzak: Gorteetarako hauteskunder-tan, EAJk 80 boto, EBak 4 boto, Eak 26 boto, AZk 10 bo-to. Balio gabek botoak 56 izan ziren.

Autowag, s.a.



☎ 943 888 254 943 888 266

Faxa: 943 888 105

N-1 errepeidea, 419 Km

BEASAIN

**Iues
rothers**
BEASAIN

Apirilaren 3an Aralarren jokatu da Elkarteen arteko Goierriko ehiza txapelketa

Apirilaren 3an izango da aurtengo Goierriko ehiztari eta txakurren txapelketa. Zaldibia, Ordizia, Beasain, Idiazabal eta Segurako ehiztari elkarteek txandaka antolatzen dute eta aurtengo antolaketa zaldibitarrei dagokienez, Zaldibiako Gaztelu elkarteak Ramon Nazabalek eman digu txapelketa honen berri.

Urtero Goierriko ehiztari eta txakurren txapelketa jokatu da eta aurretik Elkarte bakoitzak herriko txapelketa egiten du: Zaldibia, Ordizia, Beasain, Idiazabal eta aurreko lehen aldiz segurarrek parte hartzen dute. Beste hainbat herritan ehiztari elkarteak badaude ere hauetan, bakarrik egiten dute txapelketa. Herri bakoitzeko hiru lehenek hurrengo urteko Goierriko txapelketan parte hartzen dute. Eskualdeko txapelketa hau txandaka antolatzen du elkarte bakoitzak. Ondoren Gipuzkoakoa, Euskadikoa eta Espainiakoa ere jokatu dira.

Hiru maila daude 18 urte artekoak, 18 eta 65 artekoak eta 65etik gorakoak. Bakoi-tzetik 3 sailkatzen dira, nahiz eta gazteenen eta zaharrenen mailatan askotan ez diren 3



horiek osatzen. Gutxi badira ere, Goierriin badira emakume ehiztariak, baina, txapelketan parte hartzera ez da inor animatzen. "Gazteak ere asko ibiltzen dira ehizean baina nahiago izaten dute usotara joatea, tiroak botatzera. Eperretan edo oilagorretan aritzeko, berriz, asko ibili behar da eta askotan tirorik bota gabe, hori gazteari ez zaio gehiegi gustatzen", azaldu digu Nazabalek.

Lehiaketa arauak

Mendian eperrak eta faisaiak botatzen dira. Arabatik 50 oilaragor eta 50 faisai ekartzen dira eta goizeko 7ak aldera mendian zabaltzen dituzte. Askok ehiza eremutik kanpora alde egiten dute eta beste asko sasi handia dagoen lekuan sartu eta ez dira aurkitzen. Hori dela eta gutxi gora behera erdiak botatzen dira

eta gainontzekoak mendian geratzen dira.

Goizeko 9ak aldera hasi eta 12ak 12,30ak aldera arte aritzen dira ehizean. Pieza gehien botatzen dituenak irabazten du. Berdinketa egonez gero eper gehien botatzen dituenak izaten da irabazlea eta horretan ere berdinketa bada, ehiza egin ondoren lehenengo iristen denak.

Ehiztari bakoitzak laguntzaile bat eramaten du eta laguntzaile hori beste ehiztari batekin joaten da epaile modura. Ehiztariak bi edo hiru leku ezberdinetatik abiatzen dira denak batera ez joateko. Mendian ibilaldi handiak egiten dituzte, txakur ona behar da baina hankak ere bai. Zerbait ehiztari oso azkar, baita korrika ere ibiltzen dira.

Ehiza txapelketak urtero egiten badira ere goierritar askorentzat ez dira batera

ezagunak. "Agian jende askorentzat ez da gai interesgarria. Ez da gehiegi zabaltzen. Interesa duten ehiztariak bakarrik jakiten dute. Beste asko udazkenean usotara joan eta kitto, ez dira txapelketetaz batera interesatzen. Adibidez arrantza txapelketa ere egiten da eta neronek ere ez dut jakiten, noiz eta nola", dio Nazabalek.

Txapelketen lehiaz gain, gehienbat entretenimendua dira ehiztariarentzat. "Izaten da hegaztiak zaurituta alde egin duela eta beste batek hartu duela, eta horrelakoak. Baina haserrealdirik ez".

Zorteak ere jokatu dira

Ramon Nazabalen esanetan: "Zorteak ere badauka zer ikusia, adibidez, iaz Zaldibiako txapelketa irabazi zuenak oso erraz irabazi zuen, eta Goierrikoan ez zuen hegazti bakar bat botatzerik lortu. Zaldibiakoak erabiltzen dugun ehiza lekua eta Idiazabalgoak erabiltzen dutena ere ezberdinak dira, ehiztari bakoitzak berea hobeto ezagutzen du. Ondoren Gipuzkoako txapelketa Nafarroako Baldorba bailaran egiten da eta han ehiza egiteko modua aldatu egiten da. Lekuak, zorteak... denak du zerikusia".

ZALBIDE
TOLARE
SAGARDOTEGIA



Arraiak parrilan

© 943 65 21 76

ABALTZISKETA



Mendizabal, C.B.

ITURGINTZA - BEROGINTZA

Tel.: 609 614 552 (Iñaki) - 659 644 221 (Xabi)
Txindoki, 23 - 4. ezk.

ZALDIBIA

Kirola bi lerrotan



Ordiziako futbolariak Bartzelonara

Ordiziako hiru futbol talde, bi infantil eta kadete bat Bartzelonara joango dira Aste Santuan. Apirilaren 8tik 12ra Bartzelonako Maresmen ospatzen den futbol txapelketan parte hartuko dute aurreko urteetan bezalaxe. Argazkia iazkoa da.

Goierrri Triatloi Taldea

Ordizia Triatloi Taldea eta Antzizar Triatloi Taldea, 2004 urtetik aurrera talde berri eta bateratu bezala arituko dira 'Goierrri Triatloi Taldea' izenaz. Bateratze honen funtsa, bi taldeen arteko betidaniko harreman ona izan da, eta bigarren zentzu batean, Euskadi mailan era konpetitiboago batean aritzea. Helburu nagusia, Goierrri bailaran zehar kirol honen sustatzea lortzea da. Partaideak Joxi Garmendia, Asier Eskisabel, Aitor Zabaleta, Asier Arakama, Igor eta Iker Saiz anaiak, Iker Jauregi, Gorka Eraso, Etor Mendia, Aitor Escalante, Igor Merchan, Gorka Auzmendi, Andoni Auzmendi, Iker Contreras, Ramon Altuna, Andoni Illarramendi, Jon Aranburu, Eneko Elozegi, Gorka Argaiz, Naroa Arrieta eta Iker Baztarrika dira. Martxoaren 22an Asier Eskisabel Euskadiko selekzioarekin joan zen Gironara, Espainiako Duatloi txapelketara.

Urrezko Aizkolariak

Martxan da aurtengo Banakako Urrezko Aizkolariak lehiaketa. Bertan 3 goierritarrek hartuko dute parte, Azurmendi arriandarrak, Ugartemendi ezkiotarrak eta Esnaola zegamarrak. Martxoaren 27an Ugarteburuk Aranberriren aurka jokatu du eta hurrengo egunean, 28an, Azurmendik Txapartegiren aurka izango du norgehiagoka. Esnaolak, berriz, gazteen mailan parte hartuko du eta apirilaren 4an Zegaman bertan Xabier Mingegiaren aurka arituko da. Gazteen lehiaketako lehen biek nagusien mailan jokatzeko aukera izango dute.

Frontis: pilota enpresa berria

Besagainen izandako zatiketaren ondoren pilota enpresa berria sortu da Frontis izenarekin. Bertan bi goierritar baterano arituko dira Alustiza segurarra eta Mendia beasaindarrak.



Eskolarteko mendi ibilaldi neurtua

Beasaingo Aitzgorri mendi elkarteak antolatu du aurtengo Goierriko eskolarteko mendi ibilaldi neurtua. Martxoaren 14an 484 haur elkartu ziren Beasainen ibilaldi honetan parte hartzeko. Goierrri Garaia eta Goierrri Beheko eskolek parte hartzen dute eta Goierrri Behekoei dagokionez ondorengo eskolek parte hartu zuten: Ataungo Joxe Miel Barandiaran; Beasaingo Alkartasuna, Loinazpe, Murumendi eta Andramendi; Idiazabalgo Aita Iparragirre; Lazkaoko San Benito; Legorretako Ugare; Ordiziako Urdaneta, Jakintza eta Oianguren; Ormaiztegiko San Andres; Segurako Laiotz; Zaldibiako Lardizabal eta Zegamako Aitxuri.

'2. Aitzgorriko Bira' maiatzaren 9an

Orain bi urte bezala, datorren maiatzaren 9an '2. Aitzgorriko Bira' izango da Beasaingo Aitzgorri Mendizale Elkarteak antolatuta. Proba hau, bi urtez behin bere ibilia egiteko asmotan sortua da, eta hasiera arrakastatsua izan zuenez, antolatzaileak ilusioz beterik antolatzen ari direna gainera.

Proba, EMFk (Euskal Mendizale Federakundeak) antolatuta duen iraupen luzeko mendi-martxen koparako baliagarria da, 52 km inguruko ibilbidean barrena eta 2000 metroko desnibela du, eta bere ibilbideak Goierriko bailara osoa ikutzen duela esan daiteke: Beasaindik atera, Olaberriko ibilbideetan zehar Idiazbalgo mendien barrena Etxegarateraino joan, handik Zegamako mendietan barrena Aizkorriraino, eta bertatik berriro ere Beasainera, Zeraingo, Segurako eta Ormaiztegiko lurretatik barrena.

Jabier Imaz eta Mikel Garmendia

Ezinduentzako Espainiako eski txapelketan urrezko bi domina eta zilarrezko beste bi lortu zituen Jabier Imaz beasaindarrak. Mikel Garmendia ordiziarrek, berriz, 5. eta 7. postuak lortu zituen.

Euskadiko itzulia Lazkaon bukatuko da apirilaren 9an: "Azken 40 kilometrotan 4 mendate igota, etapa bukaera bizia eta gogorra izango da"

Apirilaren 9an, Ostiral Santu egunez, Euskadiko itzulia Lazkaon bukatuko da. Goizeko etapak Goierriko errepideetan 40 kilometro gogor egin ondoren izango du helmuga. Arratsaldekoa, erlojuaren aurkakoa, Lazkaoko herrigunean eta inguruetan, 8 kilometroko zirkuituan, jokatuko da. Igor Sarriegi antolakuntzako kideak eman digu probaren berri.

Bai goizeko sektoreak eta erlojuaren aurkakoak ere leku berean izango dute helmuga, Hirigoien kaleko 40. atari inguruan. Lehen bi helmuga ezberdin izaten ziren, baina itzuliak geroz eta muntaia handiagoa ekartzen duenez hori ezinezkoa da gaur egun.

Prestakuntzak

Arratsaldeko erlojuaren aurkako ibilbidea herri barrukoa da eta horrek zailtasunak dakartza. Herriko zirkulazioa moztu egingo da, bi norabideetan. Saihesbidean karril bakarretik norabide bakoitza aldika ibiliko da. Goizean herri barruan autoa uzten duenak iluntzera arte ez du mugitu.



1982an Lazkaon Euskadiko itzulia bukatu ondorengo podiuma. Ezkerrean Francesco Mosser, erdian Jose Luis Laguia itzuliko irabazlea eta eskuinean Julian Gorospe Lazkaomendiko kronoeskaladako irabazlea.

tzetik izango. Hau dena aurrera eramateko jendearen laguntza beharrezko izango du te antolatzaileek.

Ibilbide hau prestatzeko orduan zerikusi handia izan du Ostiral Santu eguna izateak. "Jai izanik, lantokiak itxita egonik, errazagoa baita herri guztiko zirkulazioa mozte. Bestela ezinezkoa izango litzateke", dio Igorrek.

Aparkalekuak

Bi gune garrantzitsu prestatuko dira autoak aparkatzeko. Bat Lazkaotik Ataun alderako irteeran dagoen industrialdean eta bestea CAF-en. Biak

ere erlojuaren aurkako ibilbideetik bertatik bertara daude. Goizean Lazkaomendira igo-tzeko Goierri eskolako apar-kalekuan autoa utzita ere igo-tzeko aukera egongo da.

Lazkaomendiko aldapa

Euskadiko itzulian, urtero igotzen dute mendate berriren bat, motza eta gogorra. Azken urteetan Bizkaiko Enkar-terri inguruan. Aurtengoa Zaldibiatik Lazkaomendira doana izango da. "Etapu bu-kaera bizia eta gogorra izan-go da. Azken 40 kilometrotan Urkillaga, Olaberria, Gain-tza eta Lazkaomendi igo be-harko dituzte. Azken honeta-tik helmuga bertantxe dago

eta tropela hautsita iritsiko da".

Zaldibiatik Lazkaomendi-ra doan errepide zati bat as-faltatu gabe dago, baina, an-tolakuntzak diputazioarekin badu zati hori asfaltatzeko akordioa. "Hau garrantzitsua izango da hemendik aurrera Goierri antolatzen diren txi-rrindulari lasterketetan edo zikloturistentzat nazional ba-ta saihesteko bide berria ego-kituko delako", adierazi digu Sarriegik.

4. aldiz Lazkaon

1981. urtean Lazkaon hasi zen Euskadiko itzulia, lehen etapa hasi eta bukatu eta bi-garrena hasi, Juan Fernan-dezek irabazi zuen. 1982an, be-rriz, amaiera izan zen bertan, arratsaldean Lazkaomendiko kronoeskalada Gorospek ira-bazi zuen eta itzulia Lagiak. Azken aldiz 1989an Lazkaon hasi zen, itzulia, lehen etapa Jhonny Weltz-ek irabazi zuen, eta hurrengo egunean elurra egin zuenez neutraliza-tuta joan zen lasterketa Biz-kairaino.

Lazkao bezalako herri ba-tean hainbeste aldiz Euskadi-ko itzulia izatea txirindulari-tzaren alde egiten den lanaren ondorio da. "Jendea lanerako prest dagoela esan nahi du. Kontutan hartu behar da ur-

LAZKAO GARAJEA

Senpere Industrialdea
☎ 943 882 442
☎ 943 888 901
Faxa: 943 888 901
LAZKAO

ZUZENKI


Abokatuak
Enpresen asesoria eta gestioa

txekin

www.txekin.net

Etxebizitzaren salmenta:
Legorreta Beasain Orendain

Tel/Faxa: 943 162 393 e.posta: zuzenki@euskalnet.net Ellosegi, 16 LAZKAO




Ibilbidea

Goizean Lekunberritik atera eta Goierrin Lizarrustitik sartuko dira. Ondoren Urkillaga igo, Lazkaoetik Olaberria igoko dute, hortik Zaldibiara joango dira Larraitz aldetik Gaintza igoko dute eta ondoren Zaldibiatik Lazkaomendira igoko dira. Lazkaoen Mojen komentutik herrian sartuko dira eta plazatik pasa ondoren Hirigoiaren kalean bukatuko da.

tero Lazkaoen kadete, jubencil, afizionatu, maila guztietako lasterketak antolatzen direla. Sanprudentziotako afizionatuen proba 1929tik antolatzen da urtero. Bost edo hamar urtetan behin lasterketa garrantzitsu bat ekarri eta hor lan egiteko jendea aurkitzen da, zailena urtero-urtero

hainbat proba antolatu eta horiek mantentzea da", dio Igorrek.

Lazkao Kirol Elkarteko txirindularitza sailaren lana izan da Euskadiko Itzuliko azken etapa Lazkaora ekartzea. "Juan Luis Juarez, Patxi Lasa eta horiek izan dira ahalegin horren 'errudun'



Arratsaldekoa

Arratsaldeko erlojuaren aurkakoak 8 kilometro inguru izango ditu eta Lazkao ezagutzen duenak ulertzeko moduan, hau izango da ibilbidea: Gurutzen aterako dira, 6. torrea eta ibaiaren artetik. Ibai bazterretik joan, San Inazioko zubia pasa, hortik estankora joango dira eta Senpereraino jaitsiko dira, bariantetik goraino igo eta Zubizkitza atzetik Santa Madalenako errotondatik Amoskategiraino igoko dira. Hortik Olaberriko aldapa erdiraino-edo igotzen den bidea dago eta handik Santander Bankuraino jaitsiko dira eta bertatik helmugaraino joango dira.

nagusiak. Helburua lortzeko garagardo festak, zozketak eta hainbat ekintza egin dira eta udalak ere lagundu du. Kamisetak atera dira eta enpresetan ere diru eske ari gara", azaldu digu Igor Sarriegik.

Kasualitatea izan da hain denbora gutxian Lazkaoen Ki-

lometroak eta Euskadiko itzuliko etapa pilatzea. "Bakoitza gure aldetik aspaldidantik ari ginen hori lortzeko asmoz eta antolatzaileon kalterako batera lortu genuen. Horren eraginez herriko enpresek bi ekitaldientzat dirua eman beharra izan dute".

IBAI ONDO

ARROZTEGIA

Logela, egongela eta sukaldeko altzari nahiz osagarrietan aukera paregabea

Altzariak neurritara
Mota guztietako aroztegi lanak
PVC eta aluminiozko leihoen fabrikazioa

☎ 943 16 40 40 faxa: 943 16 47 47
Poltsikoko telefonoa: 639 631 640
Antzizar-Katea, 5 BEASAIN

LAZKAO

Etxebizitza **unifamiliarra**
eraikitzera goaz
lorategiarekin

☎ 943 161 032
652 775 741

ATAUN

Etxebizitza **bifamiliarra**
eraikitzera goaz
450 m²-ko **lorategiarekin**

☎ 943 161 032
652 775 741

Aseguru korreduria

SEGURUEN PROFESIONALAK

MUNDUATE, S.L.

Elosegi, 1- beheha
Tfnoa.: 943 88 86 20
Tfno. mugikorra: 609 49 14 41
Faxa: 943 88 91 18
LAZKAO

ZINEA

GOIENIZ:

Apirilak 1: 'Baraka',
Usurbe Antzokian,
21:00etan.

ORDIZIA:

'21 gramos', ostirala 26,
22:15ean; larunbata 27,
22:15ean; igandea 28,
19:30-22:15ean; astelehena
29, 19:30ean.

'La mansion encantada',
larunbata 27, 19:30ean;
igandea 28, 16.45ean.

LEGORRETA:

Martxoak 25: 'En la ciudad sin limites', Herri
antzokian, 20:30ean.

BEASAIN:

'Unibertsolariak',
martxoak 13, Usurbe
Antzokian, 17:00etan.
Euskaraz.

GOIENIZ

'Baraka'

Ron Fricke
(AEB 1992)

'Baraka' hitzaren esanahia, antzinako sufieratik hartua, bedekazioa, arnasa ala bizitzaren muina izan daiteke. Irudi mosaiko eder bezain itzela osatzeko 24 herrialde-tan hartu ziren irudiak, toki guztiz desberdinetan: Tanzania, Txina, Brasil, Japonia, Kuwait, Kanboya, Iran eta Nepalgoak, Europako eta AEBetakoekin nahastuta. Horrela, munduaren ikuspegi panoramiko eskaini nahi zaigu. Lurra planetari naturak eta gizakiak egin dizkion ekarpen miresgarrienak eta gordine-nak tartekatuz, 'Baraka'-k zibilizazioaren historia kontatzen digu, ipuin bat bailitzan, lurraren eta gizakiaren arteko harreman gorabeheratsua ardatz hartuta. Hitza isilduta, ikusmena, entzumena eta irudimena nagusitzen dira erabat eta ideiek indar izugarria hartzen dute.

musika

BEASAIN:

Martxoak 27, Udaberri Gaztea: Skate, Rolling Milkshake, Fitter Hapier, Seppoti, DJ. Video Jokey eta Pi, Laboratorio de sensaciones, Bideluze plazan, 18:00etatik aurrera.

Apirilak 3, Udaberri Gaztea: Sin Red, Dogma de Fe eta Spurium, 21:00etan, Bideluze plazan.

ORDIZIA:

Apirilak 3, Hondoren abesbatzaren kontzertua, San Ana abesbatzak antolatuta, bere 25. urteurrenean. Eliz parrokiari, 20:00etan.

SEGURA:

Martxoak 26, Iparra-Hegoa: Elaudi Lapurdiko folk musika taldea, Karpa barruan, 22:30ean.

Martxoak 27, Iparra-Hegoa: Iratxo taldearekin dantzaldia, 23:00etan.

ZEGAMA:

Martxoak 30, Tobera Musika Eskolako trikitixa eta pandero ikasleen entzunaldia, Kultur etxean, 18:00etan.

bertsoak

GABIRIA:

Apirilak 17, Osinalde saria, Osinalde elkartearen, 20.30ean.

IDIAZABAL:

Martxoak 13, Axari saria, Osinalde sarirako baliagarria, 20:30ean, Axari elkartearen. Bertsolariak: Manex Agirre, Iban Urdangarin, Xumai Murua, Jon Elizetxe, J. Angel Aranburu eta Izarne Zelai.

ORDIZIA:

Martxoak 27, Argi Berri saria, Osinalde sarirako baliagarria, 20:30ean, Argi Berri elkartearen. Bertsolariak: Agin Rezola, Iñaki Viñaspre, Oihana Bartra, Antton Fernandez, Beñat Lizaso eta Gorka Iribar.

ZEGAMA:

Apirilak 3, Kasinok antolatutako bertso jaialdia, 22:30ean pilotalekuan. Bertsolariak: Andoni Egaña, Sebastian Lizaso, Maialen Lujanbio, Iker Zubeldia, Ekaitz Goikoetxea eta Jokin Sorozabal. Gai jartzailea: Laxaro Azkune.

GOARDIAKO FARMAZIAK



Astegunetan: Cuesta
(Nafarroa etorbidea, 39 - Beasain). 943 880587.
Martxoak 27-28: Jauregi
(Santa Maria, 2 - Ordizia). 943 160949.
Apirilak 3-4: Cuesta
(Nafarroa etorbidea, 39 - Beasain). 943 880587.
Apirilak 10-11: Lurnaga
(Kale Nagusia, 4 - Ordizia). 943 881828.

dantza

BEASAIN:

Martxoak 27, Aurtzako haurren dantza ekitaldi berezia, 17:00etan Usurbe Antzokian.

ORDIZIA:

Martxoak 26, Urdaneta dantza taldearen dantza ikuskizuna, Herri Antzokian, 19:00etan.

ZERAIN:

Martxoak 28, Usadio zaharreko erromeria, 18:00etatik 20:00etara, elizaren arian.

antzerkia

BEASAIN:

Martxoak 26, Antzerki Garaia: Pocaconya taldearen 'Humor sapiens' antzezlan, Usurbe Antzokian, 22:15ean. Sarrera: 7 euro.

ORDIZIA:

Apirilak 2, Antzerki Garaia: t'(ARTE)an taldearen 'Sonata segundu batean... eta piku' antzezlan, Herri Antzokian, 22:15ean. Euskaraz. Sarrera: 7euro.

ZALDIBIA:

Martxoak 26, Pakita antzezlan Txalo taldearen eskutik, 22:30ean, Antzokian.

Bertsolari gazteen Osinalde saria jokoan

Aztirian, Ordizian eta Idiazabalen kanporaketak jokatuko dira

Apirilaren 17an jokatuko da Osinalde saria Gabiriako Osinalde elkartearen 6 bertsolarik parte hartuko dute bertan, Aztiriako, Ordiziako Argi Berri eta Idiazabalgo Axari sarietan aukeratuko dira bertsolariak. Guztira 18 bertsolari gazte lehiatuko dira eta kanporaketa bakoitzetik, lehenengo biek lortuko dute Gabirian jokatze txartela. Ohi bezala, bertso afarien bueltan jokatuko dira txapelketak.

Goierritar bakarra izango dugu lehian, Iban Urdangarin ataundarra. Iaz Osinalde sariaren irabazlea Iñaki Apalategi beasaindarra izan zen.

Lehenengo kanporaketa Aztirian jokatuko zen martxoaren 13an. Apirilaren 17ra bitartean, beste bi saio gelditzen dira, Ordizian Argi Berri elkartearen eta Idiazabalen Axari elkartearen..



Iban Urdangarin ataundarra izango da Goierriko partehartzaile bakarra.

Argi Berri saria

Martxoaren 27an jokatuko da, 20:30ean Argi Berri elkartearen 6 bertsolari arituko dira lehian: Agin Rezola (Astigarraga), Iñaki Viñaspre (Gasteiz), Oihana Bartra (Bilbo), Antton Fernandez (Urretxu), Beñat Lizaso (Azpeitia) eta Gorka Iribar (Zumaia).

Axari saria

Idiazabalen jokatuko da azkeneko kanporaketa, Axari elkartearen. Afariaren ondorenean, 6 bertsolari jardungo dira nor baino nor: Manex Agirre (Aramaio), Iban Urdangarin (Ataun), Xumai Murua (Azkaine-Lapurdi), Jon Elizetxe (Gartzain-Nafarroa), J. Angel Aranburu (Hernani) eta Izarne Zelaia (Donostia).

hitzaldiak

GABIRIA:

Apirilak 19, Udaberriko lore eta landareen zainketaz eta lore lehorrei buruz, Kultur etxean, 17:00etan.

ZEGAMA:

Martxoak 30, Olarango Gizarte Zentroan, 'Euskal Herriko gozogintzaren bilakaera', Antton Adarragaren eta Juan Jose Urigainen eskutik, 19:30ean.

Apirilak 1, Olarango Gizarte Zentroan, 'Eguraldia eta erleak elkar gozatzeko', Pello Zabalaen eskutik, 19:30ean.

erakusketak

ORDIZIA:

Martxoaren 26ra arte, Manu Urangaren pintura erakusketak, Barrenan.

Apirilaren 16tik maiatzaren 7ra, Juan Carlos Cardesin, Iñaki Gonzalez Gurpegi eta Jose Antonio Fermin Goro-sabel artisten 'ExP 2004' izeneko erakusketa, Barrenan.

SEGURA:

Apirilaren 11 arte, 'Baratze kritikoa: elikagaiekin zer ari da gertatzen?' erakusketa, Ardixarra etxean.

mendi irteera

ORDIZIA:

Martxoak 28, Ordiziako Mendizaleak: Herriko XX-XIX. haurren ibilaldia.

Apirilak 4, Ordiziako Mendizaleak: Etxegarate-Lizarusti.

Apirilak 17, Ordiziako Mendizaleak: Ikaztegieta.

Debaldeko iragarkiak

Etxebizitzak

salgai

➔ 63 m²-ko etxea, ganbarakin salgai Zegamako Olaberria auzoan. 943801053 - 943800426.

➔ Etxebizitza salgai Beasain erdigunean. 100 m². Garajearekin. 943641638 (Itziar). 21:00etatik 22:00etara deitu.

➔ Lazkaon etxebizitza salgai. 84 m². 3 logela, 2 bainugela, egongela, sukaldea jarrita eta trastalekua. 676987788.

errentan eman

➔ Pisua alokatzen da Beasain eta Olaberria artean. Erabat jantzia eta berogailuarekin. 669340218.

➔ Nafarroan, Urbasa mendilerroaren eta Urederraren ondoan, etxea, bere aparkalekuarekin, alokatzen da asteburu, zubi eta abarretarako. 948539381.

Garajeak

salgai

➔ Beasainen, Zazpitu-rieta kalean, garajea salgai. 636422879 - 943888920.

➔ Beasainen, bi plaza-ko garajea salgai. 943084505.

errentan eman

➔ Seguran garajea alokatzen da. 616806384.

➔ Beasainen, garaje itxia alokatzen da Dulce M^a Loinaz etxaldean. 943187768. 20:00etatik aurrera deitu.

Lokalak

errentan eman

➔ Beasain erdigunean, (lehen Notaria zegoen bulegoetan), osasunarekin zerikusia duen jende autonomoarentzat lokalak dauzkagu. 636218240.

Bestelakoak

salgai

➔ Lau pertsonentzako karabana salgai. Bero-gailuduna eta urte osoan aterpean egona. 6093030621. Arratsaldeetan deitu.

➔ Virutex A-92 zepil-loa salgai. 1100 watio. 943085206.

➔ Mahaiari eransten zaion haurrentzako aulkia eta egurrezko sehas-ka salgai. 670422051.

➔ Autoarentzako elu-rrerarako kateak salgai. Spiker-Spider markako-ak. 943085206.

➔ Salvat entziklopedia salgai. 943882278 - 635747301.

➔ Etxeko berrikun-tzengatik lanparak saltzen dira. Egiera onean. 943885024.

➔ Gurdi-denda salgai. Abantze eta guzti. 16 m² denera. Bi logela eta erdian sala. Kofre jator bat ere bai. 1700 euro. 605750914 - arrietabeo@euskalnet.net

➔ Bi trikitixa salgai. 943084505.

➔ Seat Leon Fren 17" lantak salgai, kubi-erta eta guzti. Prezio interesgarria. 687638507.

➔ Play Station 1A salgai. Psone-a da. 4 joko, 2 mando eta memoria K batekin dator. Prezio in-teresgarria. 630485924.

Animaliak

zaintzeko

➔ Txakurak zaintze-ko gunerik dagoen jakin nahi genuke. 696218195

salgai

➔ Seguran, ardien ku-poak saltzen dira. 696220099.

erosi

➔ Bigarren eskuko piano elektrikoa erosiko genuke. 696218195.

➔ Baserrian, lurra lan-tzeko tresnak behar di-tugu. 696218195.

ZUHAIZKI
S. A. L.
ZURGINDEGIA

 **LEIHOAK, ATE-AK eta abar**
ESKAILERAK NEURRIRA

 Cuatrovientos Industrialdea, 1
Txarama Auzoa
20491 LEABURU
Tfnoa.: 943 67 36 11
Faxa: 943 67 36 55

GABINETE PSIKOLOGIKOA

ARPE


Pedro Jose Lan-da Gutierrez
PSIKOLOGOA
Kol. Zkia. E - 1687

* Depresioak * Beldurrak
* Harremanetarako arazoak * Antsiak
* Segurtasun eza

Ordua eska ezazu konpromezurik gabe
☎ 943 674 619 Nafarroa Etorb. 25 - 1. ezk. BEASAIN


BIOK ZERBITZUAK, S.L.
Enpresetako aholkularitza orokorra

www.biokzerbitzuak.com
☎ 943 88 44 00 Gollerri, 12 ORDIZIA


Pottoka
KAFETEGIA

Legazpi kalea, 3
ORDIZIA

● Pintxo hotz eta beroak
● Ogitaratekoak

Ibilgailuak

salgai

- ➡ Peugeot 205 SRD salgai. 665702888.
- ➡ Seat Alhambra 1.9. salgai. TDI 110 cv. 99. urtekoa. Gris metalizatu, 7 eserleku, kristal ilunak, ohea montatzeko egitura. 615700511. 17:00etatik aurrera deitu.
- ➡ Renault Space salgai. Gasolina. Egoera onean. Merke. 629918298.
- ➡ Seat Ibiza 1.2 salgai. 11 urte. 65.000 pezeta. 605768171. Olatz.

Lana

eskaerak

- ➡ Beasainen, asteburuetan tabernan lan egiteko neska edo emakume bat behar da. 943085481
- ➡ Mutil edo neska bat behar da uztailean eta abuztuan Goierrin lan egiteko. Gidatzeko karneta derrigorrezkoa da. Baldintza onak eskaintzen dira. 943885500. Goizez deitu.
- ➡ Filologia klasikoa edo erromanikoa egin duen pertsona bat behar da klaseak emateko. 670562800.
- ➡ Beasainen neska bat behar da 5 urteko haurra zaindu eta etxeko lanak egiteko. 943160157 - 660427222.
- ➡ Asteburuetarako sukaldaria eta zerbitzaria behar dira. 943880044.

- ➡ Sagardotegi batean, astebukaeratarako, parilleroa behar da. 943882049.
- ➡ Lazkaon emakume bat behar da etxeko lanak egin eta haurrak zaintzeko. 943881658. Gauzez deitu.
- ➡ Zumarragako jate-txe batean esperientzia duen sukaldaria behar da. 639514251.

eskaintzak

- ➡ Emakume bat prest legoke adineko pertsonak zaintzeko. 652748714.
- ➡ Ordiziako neska gazte bat prest dago uztailean, goizez, edozein lan egiteko. Dendari, tabernari, garbiketarako, haurrak zaintzeko... Ez zait axola inguruetara mugitzea. 943884898.
- ➡ Ordiziako mutil gazte bat prest dago uztailean, goizez, edozein lan egiteko. Haurrak zaintzeko, dendan lan egiteko, tabernari, garbiketarako... 943084294.
- ➡ Mutila eskaintzen da lanerako. 943730640 - 639983891.
- ➡ Emakumezko euskalduna eta esperientziaduna haurrak eta adinekoak zaintzeko prest dago. 605724457.

- ➡ Orduka, edozein lan egingo lukeen emakumea eskaintzen da. Etxeak garbitzeko, eskailerak garbitzeko, adinekoak zaintzeko... 943085508 - 678781985.
- ➡ 22 urteko gaztea lanerako prest dago. Jon. 943886778.

VOLVO



ANZIZAR, S.A.

**Autoen salmenta
Mekanika eta
elektrizitatea**

Beasain-Zumarraga, 46 Km.a
☎ 943 88 17 00 Faxa.: 943 88 48 11
www.anzizar.com
BEASAIN

Kurtso amaiera berehala iritsiko da...
Guk, kurtso amaierarako klaseak eskaintzen dizkizugu.
Azken azterketek... azken ahalegin bat eskatzen dutelako.
Eman buelta kurtsoari!

Ikaskide + **Ikasteknik**

...irakaskuntza eta pedagogia bat direlako.

Joan Iturralde 5
943 160 120
20200 Beasain





Segurako Aste Santua 1988. urtean

1988an, Aste Santuko prozesioa prestatzen aritu ondoren, elizan bertan ateratutako argazkia da honakoa. Bertan agertzen direnak, ezkerretik hasita, honako hauek dira: Koldo Telleria, Jose Luis Etxberria, Felix Jauregi, Jon Agirre (gaur egun erromatar soldaduen kapitaina), Iban Berasategi, Oier Berasategi, Oskar Terra, Jon Iñaki Izagirre, Patxi Intxausti, Iñaki Ar-tola eta Laureano Telleria.

Elorri
HERRIKOA

Jaietan ere, euskal preso eta iheslariak gure artean izanen dira. Elorripetik besarkada iraultzaile bat guztiei eta ondo pasa aurtengo jaietan.

☎ 943 80 10 02 **SEGURA**

KALITATEKO
EUSKAL OKELA

Bertako haragia
Gaztak
Etxeko arkumeak...

ONDA

janaridenda

Zurbano, 8 ☎ 943 80 03 26 **SEGURA**

ARANBURU
HARATEGIA

Nagusia, 34
☎ 943 80 10 14 - 943 80 01 41
SEGURA

IMAZ Jatetxea

◆ Eguneroko bazkariak
◆ Karta

Kale Nagusia, 27 ☎ 943 80 10 25 - 943 80 13 77 **SEGURA**

suquia

elektragailuak

KALE NAGUSIA, 10

TEL.: 943 882 300 FAXA: 943 881 348

ORDIZIA 20240 GIPUZKOA

e-posta: suquia@jazzfree.com



Mundu digitala zure eskura

BARANDIARAN
zeramikak

ERREF. MAK DISEINUAK PROIEKTUAK BAINUAK HIDROMASAJA

SEMPERE KALEA. 7, 1. LOKALA BEASAIN
TLFNO. 943 887972 - FAX 943 888657
e-mail : barandi@barandiaranzeramikak.com



O

o s k a r b i

oinetakoak

Ordizia Beasain Zumarraga